

Katakrak argitaletxean lizentzia askeen aldeko apustua egin dugu, horregatik kopiatu eta zabal ditzakezu gure liburu gehienak. Lizentzia hauek kultura zabaltzeko tresna onena dela uste dugun arren, tamalez, gure liburu guztiek ez daukate Creative Commons lizentzia, nahiz eta gehienek hala duten.

Gaur egun, teknologien garapenari esker fitxategi digitalen kopia pribatuak egitearen kostua doakoa da, horrek kulturen irisbide demokratikoan aurrerapen handia ekar dezake.

Halere, liburuak digitalki doan egon daitezen kostu handia izan dute aurretik. Lagun askoren lana dago atzean eta diru inbertsioa (eskubideen erosketa, itzulpena, diseinua, make-ta lanak eta edizioa). Horregatik, gure testuak libreki eskuragai egon daitezen laguntzeko emaitza bat egin dezazun nahi genuke.

MARX ETA KEYNES EKONOMIA MISTOAREN KRISIA

Paul Mattick

MARX ETA KEYNES EKONOMIA MISTOAREN KRISIA

Paul Mattick

Hitzaurrea: Pablo Oliveros

Itzulpena: Garazi Goldarazena, Julio Soto

Jatorrizko izenburua (1955, 1974): *Marx and Keynes, The crisis of the mixed economy*

Egilea: Paul Mattick

Jatorrizko lizentzia: Creative Commons 4.0: CC-BY-SA

Paul Matticken itzulpena: Garazi Goldarazena

Hitzaurrea: Pablo Oliveros

Pablo Oliverosen itzulpena: Julio Soto

Diseinua: Koldo Atxaga Arnedo

Lehenengo edizioa: 2025eko apirila

Edizioa eta maketa: Katakarak Liburuak

Kale Nagusia 54-56 / Calle Mayor 54-56

31001 Iruñea-Pamplona

editorial@katakarak.net

www.katakarak.net

@katakarak54

Liburu honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntza jaso du



Liburu honek Creative Commons lizentzia bat dauka. Aitortu-EzKomerziala-Lan EratorririkGabe 4.0. Nazioartekoa. Askatasuna duzu lan hau kopiatu, zabaldu eta jendartean erakusteko beti ere asmo komertzialik gabe. Obra honetatik ezin da beste ezein lan eratorri.

ISBN: 978-84-10316-11-9

ISNI: 0000 0005 1330 60655

Lege gordailua: NA 1218-2025

Inprimaketa: Alzate Grafikak

Aurkibidea

HITZAURREA (Pablo Oliveros Gregorio)	9
1. MARX ETA KEYNES	47
2. EKONOMIA MISTOAREN KRISIA.....	65

Hitzaurrea Bizitza bat iraultzaren bila¹

Sozialismoa ez da ilusio bat, izateko modu bat baizik. Sozialismoa posible ote den galdetzea okerreko auzia planteatzea da. Egokiagoa da galdetzea ea sozialistak posible diren, eta hala badira, ideia ez da sekula galduko.

Paul Mattick (1955)

¹ Hitzaurre hau hiru iturritatik abiatuta idatzi dut nagusiki. Iturri horietako nagusia Gary Roth-ek idatzitako biografia zabala da, 1976an Vermont-en egindako elkarrizketa batean oinarritua. Biografia horrek, Mattickeek XX. mendean zehar Alemanian eta Estatu Batuetan egindako ibiliari buruzko pasadizoak jasotzen ditu, eta ikuspegia eskaintzen du bere inguruko giro politiko eta artistikoekin izan zituen harremanei buruz. Hitzaurre hau egiteko beste funtsezko erreferente bat Vermonteko elkarrizketa da. Azkenik, Charles Reeve-ren *Paul Mattick: la pasión por la revolución o la distancia imposible entre pensamiento y acción* artikulua kontsultatu dut, Traficantes de Sueños argitaletxeak 2023an argitaratutako *Colapso y revolución* bilduman jaso. Ikus: Roth, Gary, *Marxism in a lost century*, Brill, Leiden-Boston, 2015; Mattick, Paul, *Colapso y revolución: ensayos sobre teoría y política*, Traficantes de Sueños, Madril, 2023.

Orain berriki Paul Matticki buruz ingelesez argitaratutako biografia batean, pasadizo bat kontatzen da non, iraganaren garrantziaz galdetuta, langile alemaniarrek zera erantzun baitzuen: «Izatekotan, hobe da iragana tratatzea nolazpaiteko urgentzia duten gaur egungo arazoekin lotuta». Orain mende erdi planteatutako gogoeta horrek gaurkotasun berritua hartzen du Matticken obra 2025eko Euskal Herrian argitaratzeko motiboak kontuan hartzean. Obraren zatirik handiena gerrarteko garaian eta Bigarren Mundu Gerraren ostean idatzi zuen, eta garaiko mugimenduekin lotutako hainbat gai jorratu zituen. Hala ere, bi dira liburuki hau osatzen duten testuak; biak ala biak kapitalismoaren krisiaren dinamikan ardatsuak. Dударik gabe, kapitalismoaren pean sortzen den krisirako joeraren azterketan da bereziki zorrotza Matticken lana. Krisiaren izaerari buruzko bere azterketa zorrotzen irakurketak oinarritzko elementuak eskaintzen dizkigu oraindik ere sistema kapitalistak dituen mugak eta kontraesanak ulertzeko garaian.

Inflazioak, geldialdi ekonomikoak, gerra-mehatxuak eta sistemaren etengabeko krisiek baldintzatutako testuinguru batean, garrantzia mantendu bakarrik ez, Matticken azterketak ezinbesteko tresna dira

gaur egungo krisia aztertzeko eta agertoki berri honetan iraultza baten aldeko apusturako aukerak ikertzeko.

Hala ere, Matticken obran bada bere berezitasuna definitzen duen funtsezko ezaugarri bat. Paul Mattick (1908-1981) beti ahalegindu zen bera langile tornulari bezala ezagutua izan zedin –gaztaroan ikasi zuen ofizioa, XX. mende luzearen lehen laurdeneko Alemanian–, baina ekoizpen oparoa izan zuen idazle gisa: ia berrogeita hamar urtean zehar 600 saiakerara, erreseina eta elkarrizketa osatu zituen. Filosofia, ekonomia, historia, politika eta kultura-mugimenduen inguruan jakintza zabala zuen arren, erakunde akademikotik kanpo sortu eta barneratu zuen bere obraren dimentsio teorikoa. Mattickek bere teoriak garatzeko izan zuen modua beti egon zen loturik bera konprometituta egon zen mugimendu antagoinistekin; eta «beste» langile-mugimendu gisa izenda zitekeen horren bueltan sortutako irakurle talde, argitalpen, liburu eta garaiko azterlanen ondorio izan zen. Aipatutako langile-mugimenduak garai hartan nagusi ziren sindikatuen, alderdi komunisten zein sozialdemokraten esparruetatik kanpo sortu eta jardun zuen. Ezaugarri horrek Matticken pentsamenduaren erro benetan iraultzailearen berri ematen

digu, zeina langile etorkin gisa beti egon baitzen loturik bere garaiko borroka sozial eta laborekin. *Chicago Arbeiterzeitung*, *International Communist Council*, *Living Marxism* edo *New Essays* aldizkarietan egindako argitalpenak ildo horretan ulertu behar ditugu.

Gaztaro eta iraultza urteak Alemanian

Paul Mattick 1904an jaio zen Szczecin-en, Pomerania eskualdean kokatutako hiri prusiar batean. Familia apal batetik zetozen, eta zortzi senidetik hirugarrena zen bera. Aitak lurrik gabeko jornalari gisa lan egiten zuen eta amak, aldiz, etxeko lanak egiten zituen: neskame edo arropa garbitzaile aritzen zen. XIX. eta XX. mendean nekazari askok egin bezala, bere gurasoek ere landa-eremua utzi zuten eta Szczecinera lekualdatu ziren, handik gutxira Berlinera joateko. Langile ez-kualifikatu gisa eta artisau alemaniarrek zuten jakite teknikorik gabe, Matticken aitak orgazain modura hasi zuen bere lan ibilia Berlinen, zaldiek tiratutako gurdi bat garraiatzen. Alabaina, azkar lortu zuen lana Siemens-en, eta, han, langile ez-kualifikatu baten lanak egiten jarraitu zuen, metalzko produktuak deskargatzen. Ofizio apal batean arituagatik, enpresak bere langileei ematen zizkien zenbait abantailaz baliatu zen (Siemenssek telegra-

fiaren ekoizpenaren gainean zuen monopolioari esker lortuak). Eta egia bada ere familiaren egoerak zertxobait egin zuela hobera, etxean ohikoak izan zituzten urritasuna eta mugak.

9 urte zituela, Paul Mattick SPDko gazterian afiliatu zen, nahiz eta une horretan ez zuen interes handirik erakutsi jarduera politikoarekiko. Garai hartan, SPDko gazteria partiduaren ezker hegalean kokatu zen, Bernstein-en errebisionismoak ordezkatzeko eskuineko korronteari zein Karl Kautsky buru zuen bide zentristari aurka eginez. SPD barruan ezkerrean kokatzeak alderdiko gazteen jarrera antimilitarista argiari erantzuten zion, bai eta haien iraultza bake-tsua defentsari ere.

SPD barruko tentsioak eta Matticken familiaren orientazio politikoa forma hartzen ari baziren ere, Lehen Mundu Gerraren eraginak erabat aldatuko zituen munduaz zeukan ikuskera eta sozialismoarekin zuen konpromisoa.

Lehen Mundu Gerra eta sozialismoaren zatiketa
Europar gertatu zen sarraski hark Belgikako lubakietara eraman zuen Matticken aita, non SPD alderdiarekiko geroz eta gaitzespen handiagoa sortu baitzi-

tzaion; izan ere, SPD alderdiak 1914an Alemaniaren gerra-kredituak onartu zituen, eta, horrela, II. Internazionalak Stutgarten 1907an hartutako akordioak traizionatu.

1916an, Alemaniako sozialismoa bi erakundetan zatitu zen. Gutxiengoak USPD alderdia sortu zuen, eta Reichstag-en zituzten 20 diputatuek uko egin zioten gerra-kreditu sail berri bati. Aldiz, alderdiaren gehiengoak, zeinean erakundearen eskuineranzko joera nagusi izan baitzen, MSPD² izena hartzen hasi zen. Matticken aita USPDra batu zen, haren adar ezkertiarrenetara zehazki (ildo espartakistari lotuak zeudenetara, alegia).

Orduantxe hasi zen Mattick gaztea bere kontzientzia politikoa garatzen. Urte batzuk geroago, baieztatu zuen honako ideia hau ez zela askorik aldatu bere nerabezarotik aurrera: iraultza langileek berek egina izango zen. Gerran zehar, Paul Mattickeek bere lehen pausoak eman zituen sistema kapitalistari obedien-

2 Kontuan izan behar da Mundu Gerra hasi aurretik Alemaniako sozialismoa herrialde osoko ia milioi bat afiliatuk osatzen zutela, eta beste bi milioi eta erdi sindikatu sozialistetan antolatzen zirela. Hori herritarren bozaren heren bat baino gehiago zen, parlamentuko ordezkari guztien laurden bat, eta komunikazio-inperio handi bat osatzen zuten beren aldizkari, egunkari, astekari eta abarrekin.

tzia ukatzeko bidean. Gerra urteetan, arbia familia langileen elikagai nagusi bihurtu zen testuinguruan –lehenago abereentzako bazka gisa erabiltzen zen–, Mattick eta beste gazte batzuk antolatu egin ziren metalezko material txikiak biltzeko, fronte militararako beharrezko produktuen bilketan boluntario zirela esanez. Material horiek ezkutatu egiten zituzten, eta, gero, trukean, elikagai freskoak lortzen zituzten estraperlo-merkatuetan. Gazte sozialista antimilitaristek lapurtu ere egiten zieten janari freskoarekin lan egiten zuten merkatariei, eta trenetan ikatz bila sartzen ziren, beren familien estufak bertan ahal izateko.

1916an bizi izan zituen Mattickek bere lehen esperientzia iraultzaileak. Lehena osabarekin Berlingo kaleetan zebilela izan zuen: goi kargu prusiar batek kargu hartu eta iraindu egin zuen Matticken osaba, Tannenbergeko guduko beterano elbarriak, bere paretik pasatzean agur egokia ez egiteagatik. Handik gutxira, ofizialak ihes egin behar izan zuen, sustan zegoen jende talde batek egurtzeko mehatxu egin baitzion. Urte bereko maiatzean legez kanpoko mitin baten ostean, non Karl Liebknecht-ek langile aldra bat xaxatu zuen, Berlin erdiguneko saltoki guztiak arpilatuak izan ziren eta hartutako produktuak

bertaratutakoen artean banatu zituzten. Matticken amak zera oihukatuz egin zuen etxerako bidea: «Hasi da iraultza!». Dataz nahastu zen, ordea.

Urtebete geroago, gerra hondamendiaren erdian eta sistema tsarista fronte guztietan kolapsatzen ari zela, irina eskasten hasi zen San Petersburgon, eta gobernuak errazionamendu sistema zorrotza ezarri zuen. Hiria matxinadek astindu zuten, eta jendea soldaduak iraintzen hasi zen. Emakumearen Egunaren hurren zela, erakunde eserista, mentxebike eta boltxebike guztiek mobilizaziorako deia egin zuten, baina *erradikalenei* zilegitasuna kendu zieten, grebarekin bat egitea babesten zutenei hain zuzen ere. Boltxebikeen fakziorik borrokalarienak ere, Vyborg auzo-langilekoak kasu, egoera baretzen ahalegindu ziren. Baina jendetzaren ekintza iraultzaileak erakunde guztiak gainditu zituen. Emakume langileek greba hasi zuten Putilov izeneko lantegian, eta hari beste asko gehitu zitzaizkion. 1917ko otsailean hasiera eman zitzaion prozesu iraultzailean, 1905eko iraultzan sortutako sobiet berak berrezarri ziren. Aste gutxiren buruan, Romanov dinastiaren hiru mendetako aginteak hondoa jo zuen eta sobieten

eta gobernu konstituzionalaren arteko botere bikoi-
tzaren errealitatea ezarri zen.³

Errusian horiek guztiak gertatzen ziren bitartean, Mattick aprendiz hasi zen Siemens lantegian. Han, heziketa askoz aurreratuagoa jaso zuen langileen seme-alaba gehienek baino. Lantegiko bere ibilian, Mattickek Alemaniako mugimendu sozialistako korronte erradikalenetako batzuk ezagutu zituen. Korronte horien muina, Berlingo langile-auzoetan zuten presentzia esanguratsuaz gainera, honako hauek osatzen zuten bereziki: Kieleko itsas armada-ko marinelek, Hamburgoko portuko langileek eta Ruhr-eko meatzariek.

1917ko negutik aurrera, desertzioak, desobediencia eta ofizialen aurkako erasoak gero eta ohikoa-
goak bihurtu ziren, eta erretagoardian biderkatu egin ziren grebak eta goseak eragindako matxina-
dak. Hilabeteetan barrena bake negoziazioen zurrurruak izan ziren arren, ontzietako ofizialek uste zuten euren betebeharra Prusiako ohore nazionala babestea zela. Hori zela eta, agintari-buruak Man-

3 Trotski, León, *Historia de la Revolución Rusa*, Capitán Swing, Madril (2017).

txako Kanaleko portu britainiarren aurkako eraso ia suizida bat proposatu zuen, 1918ko azarorako.

Azken operazio handi hura gauzatzear zirela, Kieleko marinela, soldadu errusiarren etsenpluari jarraituz, matxinatu egin ziren, eta, tokiko gobernua eraitsi ondoren, beren langile-kontseilua eratu zuten. Herrialdearen iparraldean gertatzen ari zena eredu hartuz, langile- eta soldadu-kontseiluak modu mimetikoan biderkatzen hasi ziren, alemaniar inperioaren luze-zabalean matxinada eta iraultza giroa sortuz.

Azaroko Iraultzatik altxamendu espartakistara

Urte batzuk geroago, Italiako telebistarako egindako elkarrizketa batean, Mattickek gogoratuko zuen nola egun horietan saiatu zen igotzen militante espartakista bat zihoan kamioi batera. Gizonak galde-tu omen zion armarik erabiltzen ba ote zekien, eta Mattickek baietz erantzun. Baina armaren segurua-ren posizioaren inguruan galdetuta, Mattickek zalantza egin zuen, ez baitzuen sekula armarik ukitu. Ibilgailutik bota egin zuten eta kamioia ziztu bizian abiatu zen iraultzaile armatuz beterik. Alemaniako gazteen artean, iraultza posible zelako uste bizia zabaldu zen eta politizazio-bolada oso indartsua sortu zen gizarte osoan.

Bere familiaren tradizio sozialista zela-eta, Mattick aprendizen ordezkari hautatu zuten Siemenseko langile-kontseiluan. Hala ere, laster hartuko zuen desengainua kontseiluak zituen mugez jabetuta, erabakiguneetan gehiengo sozialdemokrata baitzegoen. Nahiz eta Azaroko Iraultzatik aurrera kontseiluek kudeatzen zuten herrialdeko ekonomia eta politika, SPDk kontseiluetako ordezkartzan zuen nagusitasunak hauteskunde berriak deitzearen aldeko jarrera inposatzea lortu zuen (eredu errusiarrari jarraitzeko estatuaren aparatuaren boterea hartu behar zuten).

Eta Azaroko Iraultzak gai askotan aurrerapen handiak lortu bazituen ere aurreko erregimen prusiarren aldean –prentsa-askatasuna berrezartzea, monarkia boteretik kentzea, emakumeek botoa ematea eta sufragio unibertsala ezartzea–, gazte askoren iritziz erreforma horietako bat bera ere ez zen aurrerapauso erabakigarria izan sozialismoranzko bidean.

Herrialde osoaren testuinguru berri bezain zirragarri horretan, hainbat talde erradikal sortu ziren. Mattick bere auzoan (Charlottenburg-en) osatu zen gazte espartakisten zirkulura batu zen. Talde horretan, militante gehienak fabriketako langileak ziren, nahiz eta baziren intelektual eta ikasle batzuk ere. Matticken

arabera, osaera horrek eraman zuen Espartakisten Liga parlamentarismoaren eta sindikatu tradizionalen aurkako arbuio handia erakusten zuen programa bat hartzera. Hala ere, komeni da azpimarratzea germaniar sozialismoko zenbait pertsonaia publiko Ligaren parte ziren arren –Liebknecht eta Rosa Luxemburg, adibidez– langile masa bozeramaile gehienek defendatutako posizioetatik ezkerrera kokatu zirela. 1918ko abendu bukaera eta 1919ko urtarrila bitartean sortu zen KPD: Espartakisten Ligatik eta SPDrekin eta II. Internazionalarekin kritiko ziren beste talde batzuen batasunetik abiatu zen, Moskutik proposatutako alderdi komunistaren alderdi-ereduari jarraituz.⁴

1918ko Azaroko Iraultzaren eta 1919ko urtarrileko altxamenduaren porrotaren artean zabaldu zen tartea mugarri izan zen alemaniar iraultzaren porrota

4 Hala ere, komeni da azpimarratzea KPD alderdia ez zela talde bate-ratu gisa sortu, baizik eta izen beraren pean bildutako langile taldeen konfederazio modura, oinarri ideologikoetan bat etortzen ez baziren ere. Adibidez, alderdiaren oinarrien zati handi batek ezezkoa eman zion arlo taktikoan «parlamentarismo iraultzailearen» kontzeptua erabiltzeari, bai eta Biltzar Konstituziogilea sortzeari ere. 1919ko altxamendu espartakistaren inguruan argitaratu zen liburu bati buruz zera zioen Mattickek 1960ko erreseina batean: «Garai hartan, *espartakista* hitza sozialdemokratei eta haien aliatu erreakzionarioei boterea kendu nahi zien edozein pertsonaren sinonimo zen».

ulertzeko ez ezik Europa mendebaldean piztu zitekeen olatu iraultzailearen porrota ulertzeko ere. Une hartan Alemanian jokoan zegoenak inperio zaharrari eragiteaz gain, etorkizun hurbilean SESB Normandiarraino iristeko aukerari ere eragin zion. Azaroko Iraultzak azaleratu zituen mugek sortutako frustrazioak erradikalismoa berpiztu zuen langileriaren zati handi batean. Alderdi Komunistak ahul eta zatituta jarraitzen zuen arren, nahigabe orokorrak aurrera egiteko aukera eman zien komunistei eta USPDkoei. SPDk lasaitasunera alde egin zuen une hartan.

1919ko urtarrilean, urtea hasi eta berehala, manifestazio armatuak piztu ziren USPDko parlamentari bat poliziaburu kargutik kendu zutelako, poliziaburua aurreko hilabeteetan langileak zigortzearen aurka agertu baitzen. Egoera azkar berotu zen eta, azkenean, matxinada kutsuko masa-ekintza iraultzaile bat piztu zen. KPDko zuzendaritzak altxamendua babestera behartuta ikusi zuen bere burua, bozemaileek uste zuten arren alderdia alderdiak ez zuela boterea hartzeko indar korrelazio nahikorik. Halarik ere, Rosa Luxemburgek eta Karl Liebknechtek iraultzaren banderapean jartzea erabaki zuten eta, horren ondorioz, Freikorps taldeak, SPDko Ebert eta Noske buru zituela, bi iraultzaileak erail zituen. Gero

eta nabarmenagoa zen ordena burgesaren aldeko jarrera sozialdemokrata eta horrek langile asko eraman zituen haren ezkerretara kokatutako taldeekin bat egitera. Aldi berean, SPDk emaitza eskasak lortu zituen 1919ko hauteskundeetan eta horrek sozialdemokratak bi alderdi burgesekin koalizio gobernua osatzera behartu zituen, zeintzuek, koalizioa babesteko eskakizunen artean, Ruhr eskualdeko meatzaritza industriaren sozializazioa geldiaraztea galdegiten baitzuten, SPDko joera kontsejista zuten oinarriek irrikaz desio zutena hain zuten ere.⁵

5 K. H. Roth-ek, 1919ko eta 1921eko langile borrokei buruz egindako azterketan, bi langile mugimendu desberdintzearen garrantzia azpimarratzen du: bata, profesionala eta kualifikatuagoa, eta, bestea, orokorragoa eta masifikatua. *Die «andere» Arbeiterbewegung und die Entwicklung der kapitalistischen Repression von 1880 bis zur Gegenwart* liburuko bigarren kapituluan, Rothek deskribatzen du nola, 1918ko Azaroko Iraultzaren ostean, langile klasearen borrokak bi fasetan bereizi ziren: lehena, izaera ekonomikoa eta defentsiboa zuena, kontsejista izan zen, ekoizpenaren gaineko kogestioaren zentzuan, eta Berlingo 1919ko istiluen errepresioarekin amaitu zen. Bigarren fasea, aldiz, nagusiki politikoa, langile boterearen baieztapenari egon zen loturik. Rothek dio Heidelbergeko zatiketak eta KAPDren sorrerak «beste langile-mugimendu» horren izatea ordezkatzeko zutela, ez hain kualifikatua baina politikoki aurreratuagoa, IWWrekin paralelismo bat eginez (garai hartako Alemaniako langileen argitalpenetan sarri aipatutako eredu sindikala). Rothen arabera, 1919tik 1921era bitarteko langileen eta meatzarien borroken matxinada garai guztia mugimendu horren agerpen zuten eta heldua izan zen, sindikalismo tradizionalaren logika aldarrikatzaile eta korporatibotik guztiz kanpo zegoena. Ikus: Roth, K. H. (2011), *El otro movimiento obrero*, Traficantes de sueños, Madril, 2011.

Freikorpsek mendean hartutako Urtarrileko Iraultzaren porrotaren ondorioz, eztabaida handia piztu zen III. Internazionalen Komunistaren baitan Europa mendebaldeko iraultzaren etorkizunari buruz. Tes-tuinguru hartan, Hermann Gorter-ek eta Anton Pan-nekoek-ek gidatutako «eskola holandarrak» kontse-jismoaren oinarriak proposatu zituen leninismoaren alternatiba gisa: ikuspegi teoriko eta praktiko des-berdinak aurkeztu zituzten mugimendu iraultzailea-rentzat eta III. Internazionalearentzat.⁶

Ezkerreko komunismoaren osaketa eta KAPD
Arestian aipatu dugun moduan, KPD, hasieran, al-derdi homogeen bat bainoago Alemaniako ezke-rreko langileen taldeen bateratze gisa eratu zen.

⁶ Marxismo holandarraren eskola, *tribunista* gisa ere ezagutua (*Die Tribune* aldizkariaren inguruan antolatua zegoelako), aitzindari izan zen kontsejismoaren puntu nagusien karakterizazioan. Bere printzi-pioen artean honako hauek nabarmentzen ziren: antiparlamentaris-moa, sindikatuak klasearteko konpromisoaren tresna gisa gaitzestea, alderdia kontzientzia iraultzailearen organo modura ikustea eta al-derdia masa proletarioen bat-bateko ekintzen mende jartzea, zein-zuek balizko kontzientzia iraultzaile autonomoa zutela kontsideratzen baitzen. Gainera, korronte horrek kapitalismoaren berehalako kolap-soaren teoriari eutsi eta gogor egiten zion aurre sozialdemokraziari. Garrantzitsua da azpimarratzea bai boltxebikeak bai ultraezkertiarak bat zetozela sozialdemokraziaren eta II. Internazionalearen aurkako ja-rreran, eta biak ala biak «Zimmerwaldeko ezkerre» deiturikoan elkar-tu zirela. Adibidez, holandarrak II. Internazionalatik kanporatuak izan zirenean, boltxebikeek nabarmen hartu zuten esku haien alde.

Haren baitan, IKB –Bremengo eta Hamburgoko militanterik gehienak eta Berlingo taldekoak hartzen zituen– eta Espartakisten Liga aritu ziren aldi berean. FAUDeko sindikalista iraultzaileak ere barruan zeuden: alderdiaren parte ez baziren ere, harreman estua zuten euren ideiekin.⁷

Alderdiaren sorrerako printzipioen lehen zirriborroan, zeina erakundearen lehen kongresuan onartu baitzen, KPDko langile-oinarriek alderdiko eliteak postulatu antisindikalak eta antiparlamentarioak babestera behartu zituzten. Era horretan, Era horretan, bultzada bat eman nahi zieten azarotik.

Ordea, Paul Levi buru zuen KPDko korrante moderatuak eta Karl Radek, Alemaniako Kominterneko ordezkari boltxebikeak, alderdia bultzatu zuten koadroen antolakuntzaren printzipio boltxebikeekin bat zetorren jarrera har zezan. Errusiarrek eredutzat ezarri nahi zituzten printzipio horiek III. Internazionalako alderdi komunistentzat. 1919an, Heidelbergeko biltzarrean, alderdiaren ildo moderatuak defendatu-

⁷ *Freien Vereinigung deutscher Gewerkschaften* mugimenduko sindikalistek 1919ko abenduan sortu zuten FAUD. Talde horrek burokrazia sindikalen aurka egiten zuen, eta langileriaren diktadura babesten, alderdiaren kontrol gisa ulertua. Gainera, Lehen Internazionalaren printzipioei heldu nahi zien berriro.

tako tesiak babesten ez zituzten komunista guztiak kanporatu zituzten. Matticken taldea, bere kideen gaztetasuna zela medio, ez zen formalki kanporatua izan, baina tribunistek defendatzen zuten joera kontsejistaren alde agertu zen. Ziurrenik, eztabaida hau ezagunagoa da testuinguru komunistan Leninek tribunista germaniar-holandarrei eta komunista britainiarrei emandako erantzunagatik, zeina «Ezkerkeriaren» *haur gaixotasuna komunismoan*⁸ izeneko liburuxkan azaltzen den. Ez dira hain sonatuak, ordea, Herman Gorterrek *Gutun irekia Lenin kamaradari* izenekoan emandako erantzunak. Biak 1920 urtean argitaratuak.

Aldi horretan bertan, Alemaniak *Kappen Putscha* edo Kapp-en estatu kolpea bizi izan zuen. Herrialdeko enpresa handiek finantzatu zuten eta Freikorpssek Weimarko Errepublikako balizko bilakaera sozialista geldiaraztea helburu zuen. Estatu kolpea sindikatuek deitutako greba orokorrari eta KPD eta SPD alderdietako langile-patrula armatuei esker zapuztu zuten. Langile antolakundeek kolpistei aurre egin eta iraultza defendatu baitzuten herrialdean gerta zitekeen balizko atzerakada erreakzionarioen bel-

8 Vladimir Ilitx Ulianov Lenin, «Ezkerkeriaren» *haur gaixotasuna komunismoan*, Federico Engels Fundazioa, Madril 2024.

dur. «Langile kapdista» nagusi zen eremuetan, Ruhr-eko arroan bezala, eskuindarren kolpea gelditzeko saiakerezh gain, matxinada handi bat gertatu zen, langileriaren diktadura ezartzea xede zuena. Eta langileentzat baldintza onuragarriagoak ezartzea lortu zuten, patroiekin armak eskuan zituztela «negoziatu» ostean. Alabaina, matxinada hura lurraldeka isolatuta gelditu zen, eta parte-hartzaile asko atxilotu eta fusilatu zituzten.

Komunismo alemana KAPD eta KPD alderdietan zatitu izana eztabaida luze baten ondorio izan zen, zatiketaren aurreko urtean Leninek tribunistekin izandako eztabaidatik aurrera hezurmamitu zena.⁹

9 1919 eta 1920 bitartean, Internazional Komunistaren lehenbiziko kongresuaren ostean, bi organo eratu ziren Europa mendebaldean propaganda egiteko: «Amsterdameko *bureaua*» eta «Berlingo idazkaritza» izenekoak. Bi talde horien arteko eztabaidek Internazional Komunistaren barruko zatiketa markatu zuten, bereziki ultraezkerraren eta ildo ofizialaren artean. Holandako mugimendu tribunistak, Anton Pannekoek eta haren moduko pertsonak barne hartzen zituenak, jarrera antisindikalaren eta antiparlamentarioaren alde egin zuen, eta KPDko ezkerrarekin lerrokatu zen, hau da, gerora KAPD bihurtuko zenarekin. 1920ko Amsterdamgo Nazioarteko Konferentzian, ultraezkerra –Sylvia Pankhurst-en ordezkariak ingelesak eta delegatu alemaniar batek babestuta–, Paul Leviren ildoaren aurka agertu zen. Bien bitartean, Heidelbergeko 1919ko kongresuan, KPDko oinarriek ere ultraezkerraren posizioak bultzatu zituzten, baina zuzendaritzak baztertu egin zituen posizio horiek, eta horrek KP-Dren kanporatzea ekarri zuen. KAPD, 1920ko maiatzean sortua, aldi

Ruhr-eko gertakarien ostean sortutako Langileen Alderdi Komunistako (KAPD) kide fundatzaileetako bat zen Mattick. Alderdiaren tamaina txiki samarra bazen ere –38.000 kide zituen, eta haietako asko gazte erradikalak ziren–, KAPD ez zen zehazki alderdi bat bezala ulertzen: bere funtzio iraultzailea talde erradikalenentzako antolaketagune gisa ikusten zuen, harik eta langile klasea prest egon arte, enpresetako komiteen bidez, gizartearen kontrola hartzeko. Lehen Mundu Gerraren osteko krisi ekonomiko eta politikoaren testuinguruan, KAPDk jarrera ezkorra hartu zuen kapitalismoaren pean egonkortasuna berreskuratzeko aukerari zegokionez, eta koiuntura historikoa «krisi terminal» baten modura ulertu zuen, sistemak epe motzera konpondu ezin zuena.

KAPDren beste ezaugarri esanguratsu bat, maila historikoari dagokionez, langile desjabetzaileen figura izan zen, eta beste bat, erakundearen errepertorio taktikoaren baitan biolentzia iraultzailea erabiltzea. Max Hoelzek, Karl Plättnerrek eta haien

baterako onartu zuten III. Internazionalaren jarraitzaile gisa, baina 1921ean behin betiko aldendu zen hartatik.

Hala ere, bi alderdien arteko lankidetza estua izan zen, 1921eko marxoko ekintzan ikusi zen moduan: KPDk eta KAPDk, biek ala biek lagundu zuten herri mailako matxinadaren antolaketan.

moduko beste batzuek funtsezko zeregina bete zuten alderdiaren jarduna finantzatzeko beharrezkoak ziren desjabetzeak gauzatzeko orduan: langile eta langabe armatuen gudaroste txikiak gidatu zituzten. Hala eta guztiz ere, ekintza armatuak ez ziren helburu instrumentaletara mugatzen, hala nola erakundearen finantza-arkitekturari eustera; ekintzek berek sortzen zuten propagandaren aldeko apustua ere egin zuten KAPDn. Adibidez, 1922an KAPDko talde bat Prusiako Estatuak eraikitako monumentu bat lehertzen saiatu zen, 1871ko Parisko Komunaren suntsitzea ospatzeko eraiki zutena hain zuzen.

Ekintzarako talde horiek, CNTko «Los Solidarios» taldearen antzekoak, langabezia zeuden langileez eta gerra beteranoez zeuden osatuta. Azken horiek 1918 eta 1921 bitartean prozesu iraultzailea astindu zuen indarkeria oldetik bizirik ateratakoak ziren. Ekintza horiek zera erakusten zuten: KAPD prest zegoela ekintza zuzenetara jotzeko bere helburu iraultzaileetan aurrera egiteko bazen. Langile kapdistaren biolentzia, ordea, desberdindu egiten zen anarkistek banaka obratutako «justizia iraultzaileen» ideiatik. Biolentzia, zentzu horretan, masa dimentsioa zuena, errepresioari emandako erantzun gisa ez ezik, estatu burgesa desafiatu zein langile

mugimenduko sektore moderatuenak tenkatzeko tresna iraultzaile gisa ere ulertzen zuten.

1918 eta 1923 bitartean Alemaniako iraultzak hasitako zikloaren baitan, funtsezkoa da erreparatzea 1921ean Martxoko Ekintzaren porrotaren ostean zabaldu zen azken faseari. Izan ere, garai horrek etenaldi bat markatu zuen, eta Alemaniako gizartean mugimendu atzerakoi bat gertatu zen, 30eko hamarkadaren hasieran nazismoa boterera heltzea ekarriko zuena. Garai hartan lapurretak eta desjabetzeak nagusi ziren: Matticken kideak, klandestinitatean biziraungo bazuten, behartuta zeuden ekintza horiek gauzatzeraz. Bien bitartean, euren ekintza iraultzailea lantegiz lantegiko aldi baterako lantxoekin uztartzen saiatzen ziren. Funtsezkoa da ulertzea garai horretan 1918ko giro iraultzailea itzalita zegoela jadanik. Mattickek zenbait urte geroago honela gogoratuko zuen: «SPDko langileek uste izan zuten iraultza egin zutela 1918ko azaroan, eta espartakistak eta beste-lako talde batzuk ginela gure abenturatxoekin iraultza izorratzen ari ginenak».

1923tik aurrera, indar britainiarrek eta frantsesek Ruhr-eko arropa militarki okupatu eta gero, Alemanian nozitzen hasi ziren Versaillesko Itunak ezarritako erre-

parazio-neurri drakoniarrek eragindako krisi ekonomikoaren ondorioak. Alemaniako monetak sekulako inflazioa jasan zuen, eta, ondorioz, monetaren balioa izugarri devaluatu zen. Halakoa zen egoera, ezen zenbait tokitan utzi zioten txanponak erabiltzeari, eta produktu-trukean hasi ziren. Langabezia herrialdeko lan-indarraren ia % 25era iritsi zen. Garai hartan Mattickek sarri bidaiatzen zuen Koloniara eta, han, Koloniako Progresistak talde artistikoko kideekin harremanetan jartzen hasi zen (KAPDri lotutako AAUUE sindikatuaren gertukoak ziren).

Alemaniako egoera ez zen itxaropen handikoa. Krisi ekonomiko larri bat tartean eta mugimendu iraultzailea geldialdi betean, Mattickek 1926an herrialdea uztea erabaki zuen urrutiko senitarteko batek Estatu Batuetara joateko eman zion aukera baliatuta.

1929ko krisiaren eta New Deal artean

Aipatu beharrekoa da Paul Mattickek Estatu Batuetan idatzi zituela liburu llibur honetan dauden bi testuak. Aurrerantzean hantxe bizi izan zen ia beti Chicago, Boston, New York eta Vermont artean. Testu horietan, Mattickek gogoeta egin zuen 1929ko krisiak mundu mailan izan zuen esanahi historikoaz eta Franklin D. Rooseveltten gobernaldian

atzeraldi ekonomikoari aurre egiteko New Deal-eko politika keynestarren ezarpenaz.

Mattick 22 urterekin iritsi zen New Yorkera, Ellis Island-era. Itsasontziz egindako bidaiak eta lur estatubatuarra zapaldu orduko jasan behar izan zituen galdeketek arrasto handia utzi zuten alemaniar gaztearengan; lehen eskutik sentitu zuen zer esanahi zuen immigrazioak langile klasearentzat. Hasiera batean baztertu egin bazuten ere, Mattickek guardien deskuidu bat aprobetxatu eta, haiek ohartu gabe, onartutakoen lerroan sartu zen. Halaxe lortu zuen «mundu berrian» sartzea.

Handik gutxira Chicagora jo zuen, han bizi baitzuten senitartekoak. Behin bertan jarrita, *Chicago Arbeiterzeitung* egunkaria berriz ere martxan jartzzen ahalegindu zen, zeina 1877an sortu baitzuten Haymarket-eko erreboltan parte hartu zuten alemaniar langile etorkinek. Horretaz gain, IWWra (Industrial Workers of the World) hurbildu zen, ezaguna zitzaien sindikatu batera. Izanez ere, KAPDren Alemaniako argitalpenetan askotan aipatu zuten eredu gisa. Bere biografian adierazten duen moduan, Mattick bereziki eroso sentitu zen arrazen eta herritarta-

sunen artean bereizketarik egiten ez zuen militantzia baten barruan, non kide guztiak langileak baitziren.

Siemensen aprendiz gisa jardun zuen aldian, halako formakuntza kualifikatua jaso zuen ezen Mattickek berehala aurkitu zuen lana industrian. Hala ere, harrituta gelditu zen Estatu Batuetako langileen artean zegoen kontzientzia maila apalarekin, hainbeste etorkin alemaniar hartzen zituen herrialdea izanda. Sacco-ren eta Vanzetti-ren aurkako epaiketen harira, Mattick zur eta lur gelditu zen bera izan baitzen ia 500 langile zituen fabrika batean bi anarkisten egoerarekin kezka agertu zuen bakarra. Gainontze-koek kezkatuago ziruditen New Yorkeko burtsan zituzten akzioen balioarekin, beisboleko emaitzekin edota burgesiaren eskandalu sexualeskin.

Henryk Grossman eta irabazi-tasaren beheranzko joeraren teoria

Bakartuta egonik, Mattickek irakurketa eta idazketa izan zituen kontsolagarri. Bere zenbait artikulu KAPDri lotutako Alemaniako egunkari eta aldizkarietan argitaratu ziren. Chicagoko langile klasearen egoerari buruzko analisiak, liburuen erreseinak eta olerki batzuk ere jasotzen zituzten. Idazki horien eta egin zituen itzulpenen bidez, Mattickek zubi-lana

egitea lortu zuen AAUDren eta IWWren posizioen artean. Aldi berean, eta bere bizitzan lehenbiziko aldiz, Marx era sistematikoan ikasten hasi zen, haren *Kapitala* irakurriz. Metaketaren mugei buruzko eztabaidan interesatua, ezkerre ordezkatzeko Rosa Luxemburg eta jarrera boltxebikearen irudi zen Nikolai Bujarin irakurtzen zituen. Hilferding-ek, Leninek eta haien modura kapitalaren balizko mugen inguruan ikertu zuten beste autore batzuek ere, arazo hori gainmetaketaren krisiaren eta azpikontsumoaren ildotik jorratu zuten, bai eta kapitalismoarekin eta inperialismoarekin zuen loturatik ere.

1929an, Henryk Grossman marxista poloniarrek *Metaketaren legea eta sistema kapitalistaren hondortzea* argitaratu zuen. Liburu horrek irakurketa oso originala egin zuen *Kapitalaren* hirugarren liburukia-ri buruz, eta honakoan ardaztu zen: Marxek krisiaren eta gainbalioa lortzeko irabazi-tasaren beheranzko berezko joeraren artean ezarri zuen loturan. Era berean, aipatutako obran aztertu zuen neurri kontraziklikoak alferretan direla krisi kapitalistaren oinarri sakonei aurre egiteko, ezin baitituzte kanpondu egiturazko ezaugarriak, eta geldialdi ekonomikoaren prozesu bakoitzaren ondorioz latzenak etorkizunera luzatzen ditu. Bere analisisan, Henryk Grossmanek

zera zioen: «Krisi egoeran gainbalioa ez da aski aldi berean soldata-maila egokia eta beharrezko meta-tze-tasa bermatzeko; bata bestearen bizkar gerta daitezke bakarrik. Hortik klase-borroken indartzea». Krisiaren teoriari buruzko ikuspegi horrek eragin erabakigarria izan zuen Matticken ondorengo ekoizpen teorikoan, batik bat bere obrarik ezagunenean: *Marx eta Keynes*.¹⁰

1929ko krisia eta langabeen mugimendua

1929ko urriaren 29an Wall Streeteko Astearte Beltza gertatu zen New Yorkeko burtsan. Egun gutxi-
ren buruan, baita ordu gutxiaren buruan ere, akzioek
eta burtsak azken hamar urteetan metatutako balio
guztia galdu zuten. Gerra Handiaz geroztik Estatu
Batuek mundu mailako potentzia ekonomiko handi
gisa gozatu zuten *belle époque* hark amaiera izan

10 Henryk Grossman, Polonian jaio zen XIX. mendearen bukaeran, Bund mugimenduko sozialismo judutarrari loturik egon zen bere gaztar-
roan. Polonian 1920ko hamarkadan nagusi zen giro antikomunista-
ren ondorioz, Grossman Frankfurtera lekualdatu zen, eta han, Gizarte
Ikerkuntzaren Institutuarekin lankidetzan hasi, zeinaren lehenbiziko
zuzendaria Carl Grüninger izan baitzen, austromarxismoaren zutabe
nagusi zena. Max Horkheimer-en gertukoa izaki, Grossmanek harre-
man adeitsua izan zuen Paul Mattickeen, hotz samarra baina. Estatu
Batuetako erbestealdian zela, Fankfurteko eskolak egiten zituen iker-
keta txikientzako datuak biltzeko eskatu zion Grossmanek Matticki.

zuen. Burtsaren kolapsoaren ondorioak ez ziren Estatu Batuetara mugatu: krisia azkar zabaldu zen mundu mailan, eta merkatu guztiei eragin zien kredituan gertatu zen uzkurdua zela medio. Mattickek *Depresio Handia eta New Deal* artikuluan gertaera garrantzitsu bat nabarmendu zuen: «Depresio Handiak hasiera AEBn izan zuen beste herrialde batzuetan gerraosteko depresioa sekula amaitu ez zelako».¹¹ 1929tik Bigarren Mundu Gerra hasi aurreko tartean, nazioarteko merkataritza 1914an zuen mailaren azpitik kokatu zen. Estatu Batuetan langabezia % 25era iritsi zen. Mattick bizi zen Illinoisen moduko eskualde oso industrializatueta, krisiak are dimentsio lazgarriagoak jasan zituen. Une historiko hartan, gaur ongizate estatu bezala hartuko genukeen batean –ongintzazko elkarte, erakunde erlijioso eta udal programa mordoa batzen zituen–, laguntza oro gutxi zen.

Maila makroekonomikoan, krisia gainditzeko eta eskaintzaren eta eskariaren arteko oreka berrezartzeko aditu-batzordeek proposatutako deflazioaren aurkako neurriek ere ez zuten emaitza onik ematen, eta krisiaren ondorioak gero eta larriagoak ziren. In-

11 Mattick, Paul, *Colapso y revolución*, Traficantes de Sueños, Madrid 2023, 167. or.

dustria-mailan, herrialde osoko ekoizpenaren eskari erreala aseta gerta zitekeen inolako inbertsiorik egin beharrik gabe. Ekoizpen indarraren zati handi bat, kapital finko eta kapital aldakor forman, jarduerarik gabe gelditu zen, irabazirik sortu ezinik. Eta jakina den bezala, kapitalismoan geldialdiak krisia esan nahi du.

Berehala sortu ziren Estatu Batuetan *hoovervilles* izenekoak, guztia galdu zuten pertsonak osatutako kokaguneak. Steinbeck-ek *The Grapes of Warth* lanean erretratatu zuen moduan, herrialdean zehar harat-honat hasi ziren beren gurdiekin inongo etorkizunik gabeko pertsonak, esperantza bila denak ere. Mattickek 1926an langile estatubatuarren artean sentitu zuen giro axolagabea eta gizarte-mailan gora egingo zuten uste indartsua hilabete gutxiren buruan desagertu ziren. Beren beharrak asetze aldera eta modu espontaneoan, langile taldeak lokal hutsak edo hipotekak ezin ordainduta hutsarazitako etxeak okupatzen hasi ziren. Haietan, aisialdi taldeak, jantokiak eta beste hainbat zerbitzu antolatu zituzten. Hilabete gutxiren buruan sortu zen langile-kontzientzia, inolako bitartekaritza ideologikorik gabe.

Behin elektromekanikari gisa zuen lanpostua galdu eta Grossmanen lana oinarri harturik krisi kapitalisten irakurketatik ondorio praktiko argiak aterata, laster hasi zen Mattick batzordeetan parte hartzen. Hark egoeraz egiten zuen irakurketaren arabera, kapitalismoaren pilaketaren mantsotzeak geroz eta krisi larriagoak sortzen zituen, eta krisi horiek kanpoan uzten zituzten produkzio terminoetan *sobran* zeuden biztanleak. Halako egoera bidegabearekin, langileak ulertzera iritsi ziren zein zen ordena kapitalistaren izatea, eta subertsiorako eta ekintza iraultzailerako kontzientzia ekarri zien. Azkar batean lortu zuen mugimendu horrek garrantzia AEBko Mendebalde Ertaineko hiri industrial askotan.

Urte horietantxe hartu zuen Mattickek *Internacional Council Correspondence*ko erredakzioko eta batzorde editorialeko zuzendaritza –UPW alderdi marxista txikiaren aldizkaria zen–. Hartan, Pannekoeken edo Gorterren eta beste zenbait idazleren testu kontsejista nagusiak argitaratzen hasi ziren, Marxen edo Rosa Luxemburgen klasikoak berrargitaratzeaz gain. Halaber, aldizkariak zenbait kolektiboren jardun politikoa ere biltzen zuen, hala nola Bronx-eko biztanle beltzen artean sortutako etxegabetzeen aurkako mugimenduarena edota okupatutako erai-

kinetan elkarri laguntzen zioten taldeena, bai eta langabeen batzorde nagusienena ere. Langileek egina, agerkariak maila teoriko bikaina mantendu zuen beti bere argitalpenetan. Europako beste zenbait talde kontsejistaren egunerokotasunaren berri ere ematen zuen.

1932an, langabeen mugimenduak goia jo zuen. Urte hartan, Lehen Mundu Gerrako militar beteranoak, guztia galdurik, zeinek *Bonus Army* delakoa osatzen baitzuten, 30.000 lagunentzako txabolaz beteriko hiri bat eraikitzen hasi ziren Etxe Zuriaren kanpoaldean. Langabe talde horrek zera eskatzen zion orduko Woodrod Wilson presidenteari: eman ziezaiela gerrako beteranoei Altxor Nazionaletik zegokien bonoetako dirua, neurri horrek asko arinduko baitzuen haien egoera.¹² Garaiko kontakizunek diote kanpalekuko bizimodua diziiplina martzial baten arabera zegoela antolatua: eremua garbitzeko eta zaintzeko txandak egiten zituzten. Aurki hasiko zen, ordea, presidentearen gertuko prentsa toki hura komunista alemaniarren eta anarkista italiarren

12 1924an onartuak, beteranoentzako bonoei esker militarrek dolar bat pilatzen zuten zerbitzu-egun bakoitzeko. Zerbitzua atzerrian egin zutenek dolar laurden bat gehiago jasotzen zuten. Hogei urteren buruan eskuratu zezaketen militarrek funts horietako dirua.

aterpe gisa deskribatzen –literatura yanki erreakzio-
narioaren ohiko klasiko bat–. Botere presidentziala-
ren ateetan munta hartako mugimendu bat izateak
lotsarazi egiten zuen presidentea. George Patton
eta Eisenhower, ofizial gazteak orduan, kanpalekua
husteko arduradunen artean egon ziren. Operazio
hartan gas pozoitsuak, su-jaurtigailuak eta baione-
tak erabiltzera ere iritsi ziren bertan zeudenen aurka.

Halaz ere, eta egoera batere lasaia ez zen arren,
sistema ekonomikoa eztabaida guztietatik kanpo
gelditu zen. Izan ere, krisiaren arrazoiak Hooverren
administrazioak egindako kudeaketa publiko negar-
garriaren ondorio gisa azaltzen ziren. Horrexegatik,
egoerak iraultza baten bidea hartzeko partez, Roo-
sevelt 1932an Etxe Zurira iritsita baretu ziren gau-
zak. Bere hauteskunde-kanpainan, Estatuak jardun
ekonomikoan agente kontziente gisa jokatu beha-
rra azpimarratu zuen etengabe. Laster aurkitu zuen
presidentearen anbizioak babesia John Maynard
Keynes ekonomista britainiarraren ideietan eta ha-
ren ekonomia misto baten aldeko apustuan, zeina
garaiko ekonomisten artean nagusi zen jarrera neo-
klasikoaren edo marjinalistaren aurkakoa baitzen.
Banku-kreditua kontrolatzen zuten neurri inflazionis-
ten, enplegu-programen sorreraren eta Estatuak di-

ruz lagundutako proiektuen bidez, Rooseveltek zera nahi zuen: zikloaren planifikazioaren bidetik ekonomia kapitalistari eutsi ahal izatea.

Egiazki, plangintza ekonomikoa ez zen guztiz berritzailea izan gobernantza moduari zegokionez, Lehen Mundu Gerran hainbat gobernuk jarri baitzuten martxan ahalegin belikoaren eta patriotikoaren izenean. Aurrekari historiko horri segida emanez, Roosevelten administrazioak Estatuaren eskutik moztu nahi zuen soldaten jaitsieraren espiral lehia-korrak ekarritako joera deflazionista basatiarekin eta, aldi berean, enplegu-programak bultzatu. Arrazoiak keynestarraren arabera, krisiaren arrazoia azpikontsumoari loturik zegoen, hau da, soldata-masa handitzen bazen, enpresen irabaziak berreskuratuko ziren; eta behin enpresen irabaziak berreskuratuta, inbertsio berriak sor zitezkeen ekoizpenaren esparruan. Horrek soldaten igoera erreala ekarriko zuen.

Matticken ustez, ordea, ikuspegi hura ez zen gai orduko krisi kapitalistaren sustraiei heltzeko. Oinarri hartzen badugu ekoizpen kapitalistak irabazi-tasan murrizketa lineal bateranzko joera duela, eta gizarte-aberastasunaz jabetzeko lehia basati hori krisi-

sortzaile dela, ulertu behar dugu sistemak geldialdi-egoerak bi modutara konpontzen dituela.

Lehenak ekoizpenaren eta kapital finkoaren arloan egindako berrikuntzekin du zerikusia –irabazi-tasa handitzeko gai diren inbertsioen bidez eginak–. Baina porrot egiten bukatzen dute jokaleku berri horretara egokitzea lortzen ez duten enpresek eta, ondorioz, egoerari eusten dioten enpresek xurgatu ditzakete. Egoera horretan hazkunde-ziklo berri bat gerta daiteke: bai biziraun duten enpresen gainbalioaren masa areagotu egiten delako (porrot egin duten enpresen bezero-zorroak eskuratuta), bai kapital finkoan egindako hobekuntzek produktu berak prezio apalagoan eskaintzeko aukera ematen dutelako (kapitalaren konposizio organikoa handitzen dute). Ordea, konposizio hori handitzen den heinean, lan-indarrean egindako inbertsioaren murrizte bat gertatzen da, eta, hain justu ere, lan-indar hori da produktuen gainean balio erantsia sortzeko gai den merkantzia bakarra. Ondorioz, errentagarritasun txikiagoa ematen du berrikuntza kapitalistaren etengabeko olatuetan sortutako merkantzia bakoitzak eta horrek, aldi berean, enpresen arteko lehiakortasuna areagotu eta monopolio-egoerak sortzen ditu.

Metatze-ziklo berriak bultzatzeko ezinbestekoa da ustiaketa-tasa handitzea, eta sistema kapitalistak hori lortzeko duen bigarren modua sinpleagoa da: lanaldiaren luzapena, ekoizpen- eta erritmo-intentsitatea handitzea edo soldata jaiste. Termino marxistetan *gainbalio absolutua* deritzo. Nolanahi den, amaitzen den metatze-ziklo kapitalista berri bakoitzak langile klasearen bizi-baldintzen okertze bat ere badakar berekin.

Sistemak krisirako berezkoa duen joeraren logikari horri jarraituz, Mattickek zera zioen garaiko postulatatu ekonomiko guztien kontrakarrean: keynesianismoa eta ekonomia mistoa ez zirela gai izan 1929ko errentagarritasun-krisiari aurre egiteko. Mattickek planteatutako ikuspegiaren arabera, «hogeita hamar loriatsuen» hamarkada ahalbidetu zuena –termino kapitalistetan hitz eginez egonkortasun eta oparotasun garai arras luzea izan zen–, ez zen izan enpleguan eta azpiegiturretan zor publikoa areagotu izana. Egiaz, New Deal delakoa ez zen gai izan bere politika inflazionistak ezarriz egoera orokorra aldatzeko. Motiboaren funtsa, hain zuzen, depresio ekonomikoak iraun zuen hamarkada luzea eta Bigarren Mundu Gerrako basakeria izan zen. Bi prozesu horiek kapital-suntsipen handia ekarri zuten, bere

forma fisikoan zein monetarioan. Gertaera horien ondorioak zuzenduta baino ez zen posible izan Estatuak bultzatutako egonkortasun-ziklo berri bati hasiera ematea –Estatua hazkunde ekonomiko eta produktibo artifizialaren agente kontziente gisa ulertuta, ez merkatuaren premien arabera—. Gainera, AEBn kapitalaren zentralizazio behartu bat gertatu zen, nazio kapitalista ahulenen bizkar izan bazen ere.

Hitzaurre hau ixteko, esan beharra dago Mattick Vermonten zendu zela 1981ean, AEBko Gerra Hotzaren garaian berak babesleku bezala eraiki zuen etxe batean. 1930eko hamarralditik 70eko hamarraldira bitarteko berrogei urteetan, bera eta bere kideak aski bazterturik bizi izan ziren: bai Europako zati handi batean faxismoa ezartzearen ondorioz beren Europako harremanak galdu zituztelako, bai Macartismo garaian AEBn piztu zen giro antikomunista itzela zela eta. Haatik, oparoa izan zen urte horietako bere lana. 40ko hamarkadan Frankfurteko eskolarekin lankidetzan jarraitu zuen, bai eta Karl Korsch-ekin edo Maximilien Rubel-ekin eta gisa bereko autoreekin ere, zeinek miresmen handia sentitzen baitzuten Mattickek ekonomia marxistaren arloan zuen ezagutzarekiko, bere ibilbide akademikoa ezin laburragoa izan bazen ere. Bizitzea egokitu zitzaion garaian,

bere testuek ez zuten aintzatespen handirik izan, eta korronte kontsejistetara edo langile-helburueta-
ra mugaturik egon ziren. Ordea, hori aldatu egin zen
1960tik 1970era bitarteko hamarraldian. Urte horie-
tan European gertatu zen komunismo ez-leninista
bat berriz aurkitu izanak interes berritua piztu zuen
Luxemburgenganako eta haren moduko pertsonen-
ganako, bai eta kontseiluen komunismoarenganako
ere. Fenomeno horren ondorioz, Mattickek hainbat
aldiz bidaiatu zuen Europara. Han, *Lotta Continua*
edo *Socialisme ou Barbarie* eta gisako taldeetako ki-
deak ezagutu zituen, bai eta Alemaniako Errepubli-
ka Federaldean (Mendebaldeko Alemanian) sortzen
hasia zen mugimendu erradikaleko kide ugari.

Paul Sweezy-i eta Paul A. Baran-i kapitalismo mo-
nopolistaren hipotesiaren inguruan egin zizkien kriti-
kek, edo Marcuse-ren *One dimensional man* liburuari
egindako liburu formatuko erreseinak, zeinak onartu
baitzuen haren obrak jaso zuen kritika esanguratsu
bakarra izan zela, nolazpaiteko aitortza ere ekarri
zioten 68aren osteko giroko gazte errebeldeen ar-
tean. Mattickek, Danimarkan, ikasturte bakar batez
gozatu zuen unibertsitatean, 1972-1973 ikasturteaz,
unibertsitateko talde erradikal bateko ikasleek gon-
bidatuta. Mattickek zalantza egin zuen onartuko ote

zuten, izan ere Siemensek 1923an onartutako tornu-lari-aprendiz titulu bat baizik ez baitzuen. Alabaina, European unibertsitateetan gertatzen ari zen nolabaiteko barkaberatasun giroak izena emateko aukera eman zion.

Krisiaz gogoetan gaur

Kapitalismoaren garapenari erreparatzen badiogu 50eko hamarkadatik hasi eta gaur egunera arte –1973an elkarren segidan gertatutako krisiak, finantziarizazioa, zor publikoaren handitzea edo 90eko hamarkadako konponketa espazial eta globala–, Matticken krisiari buruzko analisia profetikoa da ia. Estatuaren esku-hartzearen logikak kapitalismoa salbatu du, baina hori arazoa beste norabait edo denboran aurrera eramanda baizik ez du lortu, non kontraesan horiek neurri handiagoan azaleratuko baitira.

Estatuak eta nazioz gaindiko akordioek ekonomian esku hartu dezakete, eta horretantxe jarraituko dute. Ez gara esku-hartze hori ikusi zaharrak gainera: Europak Troikaren eskutik 2008ko krisian izan zuen kudeaketan, adibidez, edo berriki COVID-19aren krisiaren kudeaketan Next Generation funtsen erabilerarekin. Horrekin, kapitalak mugitzeko eta me-

tatzeko dituen moduak handituko dituzte, ez dago zalantzarik, baina ez dituzte ekonomia errearen sakoneko arazoak konponduko. Zentzu horretan, pentsatzekoa da Estatuak gaur egun egiten duen lana nolabaiteko egonkortasuna kudeatzea besterik ez dela, zeinak saihesten baitu gure gizarteak ezau-garritzen dituen itxurazko bakea edo gatazkarik eza hareazko gaztelu baten gisa ez desegitea.

Hala ere, uste dugu liburu hau gaurko testuinguruan argitaratzeak erabateko gaurkotasuna duela. Bi aukera besterik ez baitago: sozialismoa, Rosa Luxemburg berriro gurera ekarrita, ala etengabeko krisi sozial eta ekologikoa, hots, basakeria.

Pablo Oliveros Gregorio
Basaurin, 2025eko otsailean

1. Marx eta Keynes

I

Ekonomia klasikoa, zeinaren hastapena Adam Smith ekonomialariarekin lotu izan den, David Ricardorekin iritsi zen bere gailurrera, baita amaierara ere. Marxen hitzetan, Ricardok «klase-interesen, soldataren eta irabazien, eta irabazien eta errentaren arteko antagonismoa zituen bere ikerketaren abia-buru. Naturaren arau sozialtzat hartu zuen aipatu antagonismoa, modu sinesberan. Horren ondorioz, baina, zeharkatu ezineko mugak jo zituen ekonomia burgesaren zientziak», garapen kritiko sakona-koak ekoizpen-sistema kapitalistaren kontraesanak eta mugak onartzea ekarriko baitzuen ezinbestean. Beraz, ekonomialari burgesek egin ezin zezaketena egiteagatik zuen Marxek bere burua ekonomia bur-

gesaren benetako oinordekotzat, baita suntsitzaile-tzat ere.

Teoria ekonomikoaren garapenak Marxen iritzia berretsi zuen. Ekonomia burgesa, aurrera egin ezin bazuen ere, gai zen bere itxura aldatzeko. Ekonomia klasikoak ekoizpena eta sistema osotasun gisa hartzean jarri zuen azpimarra. Haren jarraitzaileek trukea eta enpresa pribatuak goraipatu zituzten. Sistema kapitalista naturala, zentzuzkoa eta aldaezina dela zalantzan ez jarri arren, ekonomia burgesaren gaineko hasierako konfiantza pixkanaka ezereztu zen, teoria liberalaren eta errealitate sozialaren arteko aldea gero eta handiagoa baitzen. Kapital-meta-ketarekin batera zetozen eta geroz eta handiagoak ziren zailtasun ekonomikoen eraginez, ordea, ziklo ekonomikoei –alegia, oparotasuna, krisia eta depresioa ahalbidetzen zuten faktoreei– buruzko interesa handitu zen. Eskola neoklasikoa, defendatzaile ezagunena Alfred Marshall zuena, zientzia praktikoa bilakatzen saiatu zen ekonomia, hau da, merkatuko mugimenduetan eragiteko eta kapitalaren errentagarritasuna eta gizartearen ongizate orokorra handitzeko bideak eta moduak aurkitzen. Baina, depresio geroz eta luzeago eta bortitzagoen ondorioz, baikortasun sortu berria segituan bilakatu zen etsipen

are sakonago bat, eta ekonomia burgesaren antzutasunak berriro ere eraman zituen ekonomialariak hain deserosoa ez zen «teoria puruaren» segurtasuna eta akademien isiltasuna besarkatzera.

Depresio Handia bete-betean zela, John Maynard Keynes ekonomialariaren teoria «desafiatzaileek» ekonomia burgesaren teoria berpiztea lortu zuten. Haren lan nagusia, *The General Theory of Employment, Interest and Money* (Enpleguaren, interesaren eta diruaren teoria orokorra), «iraultza» deitua izan zen pentsamendu ekonomikoan, eta «keynesianismoaren» eskolaren sorrera ekarri zuen. Ekonomialari «ortodoxo» saiaturik, eskola berriaren aurka egin, eta «sozialista»¹³ eta «gezurrezkoa» irizten zioten; sozialista zirelakoak, berriz, Marx eta Keynes konbinatzen saiatu ziren, edo, hobeto esanda, Keynesen teoriak gure garaiko «marxismotzat» hartzen. Hala, klasizistak modu eraikitzailean kritikatzeko zuen gaitasun eta prestutasun ezaren adierazle omen zen Marxek ekonomia burgesaren etorkizunari buruz zuen eszeptizismoa. Keynesi buruz, oster, esaten zen erabat bete zituela Alfred Marshallrek kapitalismo erreformatu eta hobetu bat lortzeko zituen xe-

13 *Itzultzailearen oharra* [Itzle.oh.] Jatorrizkoan *socialistic* eta ez *socialist*, kutsu negatiboa duen hitza.

deak. Eginahal horien, «keynestarrek» orokorrean eta zirkulu akademikoetan zuten ospearean, eta baita beren arrazoiketa ekonomikoaren aplikagarritasun praktikoaren eta hain bistako eragin politikoa behin eta berriz nabarmentzearen eraginez, gomendagarri eta interesgarri suertatu zen haien aldarriak ikertzea eta haien maisu zenduaren lana berrikustea egungo gizartearen bilakaera eta joera kontuan harturik. Horrek guztiak ikuspegi keynestarra eta marxiarra alderatu beharra iradokitzen du.

II

Teoria orokorra argitaratu zuen arte, eskola neoklasikoko ekonomialaritzat hartzen zuten Keynes, zeinak hizkuntza marjinala ere berea zuen. Katégoria ekonomikoak termino psikologikoz apainduak eta, ustez, «giza izaeratik» eratorriak ziren. Norberak egindako aurreikuspenek eta desengainuek bizitza ekonomikoa determinatzen dute; are gehiago, Keynesek zioen sistema ekonomikoaren indar eragile nagusietako bat zela gizabanakoak dirua egiteko eta desiratzeko duen sena. Haren ustez, «lege psikologikoa» da gizabanakoek, beren diru-sarrerak pixkanaka handitzen diren heinean, diru-sarrera horien zati txikiagoak kontsumitzeko joera izatea. Diru-sarrera erreal agregatua handitzen denean, kontsumoa ere

handitzen da, jakina, baina ez diru-sarrerak adina. Aintzat hartuz inbertsio guztia funtsean kontsumo-beharretara bideraturik dagoela eta diru-sarrerak handitzeak kontsumoa handitzea dakarrela —betiere diru-sarrerak berak baino gutxiago—, aurrezkiak inbertsioak baino azkarrago haziko dira. Hori horrela izanik, eskari agregatua jaisten da, eta enplegu maila lan-eskaintza erabilgarria baino baxuagoa da. Aipatutakoa gizarte «heldu» batean gertatzen da, jadanik kapital-stock handia baitago; horrek kapitalaren eraginkortasun edo errentagarritasun marjinala deprimitzen du, eta baita, horrekin batera, etorkizuneko kapital-etekinei buruzko espektatibak ere. Horrek aurrezkiak dirutan gordetzeko jarrera hartzera bultzatzen ditu aberatsak, irabazirik lortzeko aukera handirik ez duen enpresa batean inbertitu beharrean.

Keynesen interes nagusietakoak geldialdi ekonomikoa eta eskala handiko langabezia ziren. Ekonomia-ren teoria tradizionala estuki lotua zegoen enplegu betearen alegiazko baldintzei eta Sayren «merkatuaren legeari», hau da, «eskaintzak bere eskari propioa sortzen» duelako usteari. Sayren antzera, Keynesek zeritzon egungo eta etorkizuneko kontsumoa zela jarduera ekonomiko ororen xedea; baina, eko-

nomialari frantsesak ez bezala, ez zuen uste eskaintza gai zenik enplegu bete mantentzeko behar adinako eskaria sortzeko. «Sayren legea» ezeztatzea da, hain zuzen, teoria keynestarraren alderdirik garrantzitsuena, bereziki «legea» bere esparru berean garaitzen baitu, señalatuz eskaintzak ez duela bere eskari propioa sortzen ekoizpena kontsumora bideratua egote hutsagatik.

Baziren ia 75 urte Marxek adierazi zuenetik soilik kapitalaren hedapen bizkortuaren eraginez handitu daitekeela enplegua, bi kontu desberdin direla kontsumoa eta kapitalaren ekoizpeneko baldintzen menpeko «kontsumoa», eta guztizko ekoizpenak gora egin dezakeela soilik kapitalaren jabetza eta kontrola dutenek guztizkoaren zati handiagoa eskuratzen badute. Marxen ustetan, «J.B Say, "*prince de la science*" gogaikarri eta barregarria», ez zen nahikoa garrantzitsua bere postutik botatzeko, nahiz eta «haren kontinenteko miresleek erosketen eta salmenten arteko oreka metafisikoaren altxorra aurkitu zuen gizona balitz bezala aldarrikatu duten».¹⁴ Marxen iritziz, Sayren merkatuaren legea zentzugarria hutsa zen, desoreka geroz eta handiagoak

14 *A Contribution to the Critique of Political economy* (Ekonomia politikoaren kritikari ekarpena), Chicago, 1904, 123. or.

zeudela ikusirik: kapitalak hedatzeko behar duen irabazien eta gizakiaren ekoizpen-baldintzatzat ditugunen artean, kapitalismoan dagoen «gizarte-eskariaren» eta benetako gizarte-beharren artean... Horrez gain, kapital-metaketak erreserbako armada industrialala berekin dakarrela azpimarratu zuen Marxek.

III

Keynesek, Marxen jarrera aztertutik, azkenean hainbeste denboraren ondoren, ez zuen kapitala ekoiztearen berezko kontraesana azpimarratu; aitzitik, enpleguaren eta inbertsioen arteko aldea primerako lorpen gisa izendatu zuen. Haren ustez, «komunitate aberats batek inbertitzeko aukera zabalagoak aurkitu beharko ditu komunitateko aberatsenen aurrezteko joerak pobreenen enpleguarekin bateragarriak izan daitezen».¹⁵ Hala ere, Keynesen teoriak honako haurzioen diru-sarreraren eta kontsumoaren arteko arrakala txikitzeari buruz: «[E]gungo oreka ziurtatzeko inbertsioak handitzen ditugun aldiro, biharko oreka segurtatzeko zailtasunak larriagotzen ditugu».¹⁶ Etorkizun hurbilari begira, ordea, uste zuen zailtasun horiek gobernu-politiken bidez gaindi zitezkeela, «likidezia-hobespena» murriztu eta «eskari efek-

15 *The General Theory* (Teoria orokorra), 31. or.

16 *The General Theory* (Teoria orokorra), 105. or.

tiboa» handituko baitzuten inflazioa kontrolatuz, interes-tasak gutxituz eta soldata errealak beheratuz, eta, hartara, inbertitzeko pizgarriak sustatuko zituzten. Hori nahikoa ez bada, gobernuak obra publikoen eta finantza-defiziten bitartez handitu dezake jarduera ekonomikoa. Enplegu betea irizpide harturik, esperimentalki probatu daiteke merkatu-ekonomian egindako hainbat esku-hartzeren eraginkortasuna. Enplegu beterik ez dakarren edozer gauza ez da nahikoa. Izan ere, «pump-priming» bidez –hots, ekonomia berrindartzearen bidez– enplegua handitzeak «bigarren enplegua» ekar dezakeenez ekoizpeneko adar osagarrietan, onartu zen horrelako enpleguak ekarriko zituela. Eta, denak porrot egiten badu, gobernuak beti izanen du inbertsioak zuzenki kontrolatzeko aukera.

Ez dago, langabeziaren zergatiari dagokionez, Keynesekin bat egin beharrik onartzeko langabeziari aurre egiteko hark proposatutako politikak eraman dituztela aurrera azken urteetan gobernu guztiek, haren teorien jakitun izan edo ez. Hark adierazpen teorikoa egin baino askoz lehenago egin zuten aipatu politikek beren estreinaldi historikoa. Berrikuntza monetario eta fiskal oro probatu zen aurretik: obra publikoa, inflazioa eta finantza-defizita gobernuen

agintea bezain zaharrak dira, eta krisialdi ugaritan erabili izan dira. Garai modernoetan, ordea, salbuespentzat hartu dira: salbuespen barkagarriak dira larritasun sozialeko garaietan, baina suntsitzai-leak politika iraunkor gisa.

IV

Marxen ustez, ekoizpen kapitalistaren berezko kontraesanak ez dira izaera «ekonomikokoak», terminoaren zentzu burgesean ulerturik. Marx ez dago eskaintzaren eta eskariaren arteko merkatu-harremanekin arduraturik, gizarteko ekoizpen-indarrek gizarteko ekoizpen-harreman kapitalistetan duten eraginarekin baizik; alegia, lanaren produktibitate geroz eta handiagoak balioaren eta gainbalioaren ekoizpenean dituen ondorioekin. Teoria burgesak, kapitalaren beraren emaitza ospetsuak, hazten ari den produktibitatea bere inplikazio sozialetatik bereizten du. Marxen iritziz, ordea, aldagai independenteak determinatzen ditu ekonomia-harremanen sistemako beste aldagai guztiak.

Marxen arrazoibidearen eskeman, garrantzi berezia dute lanak eta haren produktibitate gorakorrak; horri esker, kapital-metaketan garatzen ari zen joera zehatz bat aurkitu zuen, zeinak aldaketa kuantitati-

boek ekarritako aldaketa kualitatiboak azaleratu baitzituen. Marxek erakuts zezakeen «orekarako mekanismo» kapitalista bere burua aldatzera behartua zegoela kapitalaren hedapenaren garaian, eta azken horrek determinatzen eta aldatzen zituela eskaintza-
ren eta eskariaren merkatu-indarrak. Izan ere, merkatuaren legeek beren burua berretsi behar dute ekoizpen-indar sozialen eta ekoizpen-harreman kapitalisten arteko «desoreka» geroz eta handiagoaren marko zabalagoaren barnean.

Produktibitatea eta gainbalioa handitzea eta kapitala metatzea prozesu bera eta bakarra da. Zehazki, ekoizpen-bitartekoetan inbertitutako kapitala lan-indarrean inbertitutakoa baino azkarrago handitzen dela adierazten du. Horrek berekin dakar Marxek «kapitalaren konposizio organikoaren igoe-
ra» izendatzen zuen hori. Irabaziek, guztira inbertitutako kapitalaren gainean kalkulatzeko direnez, beheranzko joera adierazi behar dute halabeharrez, guztizkoaren zati hori, zeinak gainbalioa ekoizten duen, erlatiboki txikiagoa bilakatzen den heinean. Jakina, prozesuak gainbalio handiagoa erazteko gaitasun geroz eta handiagoa dakar berekin, eta gisa horretan lortzen du irabazien «tendentziaren» gainbehera deuseztatzea eta hori izatea prozesua-

ren beraren arrazoia. Marxen azalpenaren konplexutasun guztiak alde batera utzita, haren kapitalaren hedapenaren eskema abstraktuak agerian uzten du ezen, merkatuaren errealtatean lehia kapitalaren hedapenaren indar eragile izateaz gain, kapitalaren ekoizpenaren izaera bikoitza (hala nola truke- eta erabilera-balioa) jadanik elementu murriztailea dela gainbalioaren ekoizpenarentzat eta metaketarentzat, eta ekoizpen-modu kapitalistaren etengabeko hedapenaren eta zabalpenaren bidez soilik gainditu daitekeela. Irabazi-tasaren jaitsiera saihesteko, metaketa ezin da eten. Geroz eta gainbalio handiagoa erauzi beharra da, eta horrek ekoizpena pixkanaka goitik behera aldatzea eta merkatuak etengabe hedatzea dakar. Metaketa posible den artean, sistema kapitalista aurrera doa. Metaketa etenez gero, krisia eta depresioa ezartzen dira.

Hortaz, Marxek eta Keynesek, batak zein bestek, arrazoi desberdinak direla medio diote dilema kapitalista kapital-metaketa beheranzko tasan dartzala. Keynesek ondorioztatzen du horren zergatia inbertitzeko akuilurik ez edukitzea dela. Marxek, akuilu ezaren atzean begiraturik, kapital-ekoizpena den aldetik ekoizpenak berak duen izaera sozialean aurkitzen du arrazoia. Keynesek ez ditu krisia eta de-

presioa kapitalaren eraketaren ezinbesteko alderdi-tzat jotzen; *laissez-faire* baldintzen pean dira soilik halako, eta, orduan ere, oreka ekonomikoak enplegu betea barne hartzen ez duelako zentzuan baino ez. Marxen ustez, ordea, etengabeko kapital-meta-
ketak krisi- eta depresio-garaiak auresuposatzen ditu, krisia baita kapitalismoan funtzionatzen duen «orekarako mekanismo» bakarra haren garapenaren barnean. Kapitalaren egiturak depresio-garaian izaten ditu, hain zuzen ere, galdutako errentagarritasuna berreskuratzeko eta kapitalaren hedapen handiagoa ahalbidetzeko behar diren aldaketak.

V

Marxen metaketaren teoriak Keynesen teoria neoklasikoaren kritikari aurea hartu zion teoria klasikoaren kritikaren bitartez. Hortaz, Marxek ekonomia kapitalistaren eta haren teoriaren aurka zituen argudio batzuk partzialki berriro adieraztean datza funtsean Keynesen «iraultza». Keynesek ez zuen Marx aztertu, ezta horretarako beharrik sentitu ere; izan ere, klasizisten teoriekin batera kokatzen zuen Marxen teoria. Keynesek uste zuen teoria klasikoari kontra eginez Marxen aurka ere ari zela. Egiaz, ordea, merkatuaren teoria neoklasikoari berari heldu zion, zeinak jada ez zuen inolako lotura esanguratsurik

Smithen eta Ricardoren ideiekin. Hala ere, Marxek ekonomia klasikoari eginiko kritikak antzekotasunak ditu Keynesek neoklasizistei egindakoarekin, nahiz eta lehena Keynesena baino haratago doan, klasi-zistak beren kopiatzaile damutuak baino pentsalari sakonagoak izan zirelako, eta Marx ez zelako erre-formista burges hutsa.

Keynesek «marxismoaren oinarri ricardotarrak erai-tsi» nahi zituen arren, hori erdiesteko, zimendu horie-tan beretan oinarritu behar zuen lehenik. Balioaren teoria onartu zuen, zentzu ricardotarrean, non lanak, ekoizpenaren alderdi bakar gisa ulertuta, barne har-tzen dituen «enpresaburuaren eta haren laguntzai-leen zerbitzu pertsonalak». Marxen antzera, agre-gatu ekonomikoei buruz jardun zen Keynes. Marxen sisteman, agregatu ekonomikoei buruzko analisia kapital-metaketaren oinarritzko joera aurkitzera bi-deratu zen funtsean. Sistema keynestarrean, ordea, politika konkretu bat formulatzeko egiten zen anali-sia; ekoizpen-harreman kapitalistak kaltetu gabe ai-patutako joera sostengatzeko gai zen politika, hain zuzen ere. Sinpleki esanda, bi ekoizpen-sailetan ba-natutako sistema itxi bat irudikatzen du Keynesen ereduak; bata kontsumo-ondasunak ekoizten ditu, eta besteak, kapital-ondasunak. Kontsumo- eta ka-

pital-ondasunen guztizko kostuak soldata-unitateei dagokienez (lanordu batean oinarrituz) guztizko diru-sarrera osatzen du. Eskari agregatuak –hau da, kontsumo- eta kapital-ondasunen eskariak– guztizko diru-sarrera berdintzen duenean eta horrek guztizko aurrezkiek inbertsioak berdindu dituela adierazten duenean, sistema orekaturik dagoela suposatzen da. Eskari agregatuak behera egiteak berekin dakar aurrezkien eta inbertsioen artean aldea egotea, eta horrek guztizko diru-sarrera murrizten du, langabezia ekartzearekin batera. Egoera aldatzeko, eskari agregatua handitu behar da, guztizko diru-sarrerak enplegu betea ekar dezan arte.

Agregatu ekonomikoei buruzko Marxen sisteman, klase kapitalista kapital konstantearen jabe da, kapital aldakorra lan-indarraren baliokide sozial, eta gainbalioa klase dominatzailearen metaketa- eta irabazi-iturri. Afera hemen ez da «diru-sarrera soziala» eta «ekoizpen soziala», eta haien arteko harremana, baizik eta lan-indarraren esplotazio kapitalista.

VI

Bigarren Mundu Gerra arte, Keynesen teoriak egiaztatzeko aukera gutxi egon ziren. Koartada paregabea zuen, hala ere; edo haren proposamenak ez

ziren aurrera eramán, edo modu eskasean aplikatu ziren. Gerra-ekoizpena hastearekin batera, baina, Keynes ziur zen bere teoria guztiz frogatuko zela. Azkenik, agerian geldituko zen «zenbateko guztizko ekoizpena eta kontsumoa ziren beharrezkoak komunitate aske eta moderno bat lortzeko [...] haren baliabideen erabilera optimoa eginez gero».¹⁷ Dena den, gerra-garaiko politikak ideologia keynestarrarekin nahiko independenteak ziren, ez baitziren desberdinak Lehen Mundu Gerran erabili zirenen aldean, ezta hainbat gobernuak erabiltzen zituztenen aldean ere, haietako batzuk «iraultza» keynestarra-ekin bat egin ez zuten gobernuak izanik. Bigarren Mundu Gerrako ekonomia planifikatuari lotutako berrikuntza oro, hala nola diru- eta kreditu-inflazioa, prezio-kontrolak, lan-kontrolak, lehentasunak, derrihortutako aurrezteak, errazionamendua eta abar, eguneroko ogi izan ziren lehen hondamendian, garai hartan nagusi zen ekonomiaren ikuspegia «ortodoxoa» bazen ere.

Gerra-ekonomiak Keynesen teoriaren balioa «frogatu» zuen, hainbestearino non teoria bera alderantzikatu egin behar izan baitzen. Depresio-garaian «kontsumitzeko joera» handitzeko saiakeran porrot

17 J. M. Keynes *The New Republic* aldizkarian, 1940ko uztailaren 29an.

egin arren, teoria «berebiziko arrakasta» izan zen gerran zehar joera hura gutxitzeari dagokionez. Inbertsioak enplegu betea lortzeraino handitu ez baziren ere, eskulan eskasia ekarri zuen kapitalaren suntsiketaren ondorioz. Keynesen teoriak, gerra-garaian eten egin baziren ere, baliozkoak izanen ziren «normaltasunera» bueltatu bezain laster. Gerrak berak egiaztatu zion Keynesi nahi izanez gero edozein sistema ekonomikok izan zezakeela teknikoki enplegu betea; ez zitzaion bururatu egungo baldintzen pean gerra eta gerraren prestaketa izan zitezkeela enplegu betea lortzeko modu bakarra. Beste batzuei, ordea, bai, bururatu zitzaien; hala ere, oro har, espiritu keynestarraren adierazgarri onenak ditugu ongizate-estatuaren jarraitzaileak, hala nola William Beveridge, zeinak Bigarren Mundu Gerran enplegu betea erdiesteko programa bat proposatu zuen «eskaria sozializatzea ekoizpena sozializatu gabe» oinarri hartuta.¹⁸ Keynesianismoaren printzipioetan eraikirik eta hura gauzatzeko aurrekontu-baliabideak aukeraturik, gerrako enplegu betea bakerako baldintza izatea lortu behar zuen programak.

18 *Full Employment in a Free Society* (Enplegu betea gizarte aske batean), 1945, 29. or.

Egiaztatu zen gehiegizkoa zela Bigarren Mundu Gerraren ondoren langabezia berriz neurri gabe handituko zelako beldurra. Jada ez zen bereizketa argirik gerra- eta bake-garaietako ekoizpenen artean, eta ez zegoen Beveridgerena edo beste edozein plan onartu beharrik baliabide produktiboak hobeto erabiltzeko. «Iraultza keynestarraren» hastapenaz geroztik, ez da abagune errealik sortu haren balio praktikoa probatzeko. Hala ere, depresioan zehar gobernuek esku hartu izanak enplegua handitu zuen hein batean. Litekeena da orduan esan izana teoria zuzena zela egiaztatu zela oso modu orokorrean, erabilia izan zen bakoitzean eta aplikatu izan zen mailan. Ildo horretan, ordea, keynesianismoa gobernuaren depresio-politikak izendatzeko beste modu bat besterik ez litzateke izanen, eta bere burua nekatuko luke iradokitzen gobernuak kapitaleraketaren alderdi aurreikusgarriak zaindu beharko lituzkeela ekimen pribatuaren gainbehera sumatzen hasten den bakoitzean. Nahiz eta ekoizpena oraindik irabazi pribatuak lortzeko ekoizpen izan, gobernuak du haren hedapenaren ardura; kreditu-sistemaren luzapen logikoa da, hain zuzen ere, finantza-kontrola pribatutik gobernukora aldatzearen bitartez.

Keynestarrak ez ezik beste edozein ikuspuntu errealistak ere saihetsezintzat jo behar du gobernuaren esku-hartzea. «Ongizate-estatuaren» eta enpresa pribatuen defendatzaileek geroz eta gehiago egiten dute «ongizate-ekonomiaren» alde. Baina, inork zalantzan jartzen ez badu ere gobernu-kontrola luzarorako etorri dela, haren izaeraren auziak eztabaidagarria izaten jarraitzen du. Keynestarrak gobernuaren esku-hartze handiagoaren alde egon ohi dira nagusiki, baina, sinonimotzat jotzen direnez batetik gobernuaren erregulazioaren eta finantza-defizitaren igoera erregularra eta bestetik pribatua dena estatu-kapitalismoaren sistema bihurtzea, sarritan, «sozialismo progresibo»¹⁹ bat balitz bezala kontrajartzen zaio. Gobernuak erregulatutako ekonomia kapitalista baterako trantsizio-egoeratzat ere har daitekeenez keynesianismoa, sistema kapitalistaren barreneko erreforma sozialaren teoria bihurtu da. Hortaz, marxismoarekiko aurkakotasun hertsian dago, azken horrek ez baitu gizarte-erreformarekin zerikusirik, sistema kapitalistaren abolizioarekin baizik.

19 [Itzle.oh] Jatorrizkoan *creeping socialism*, alegia, hazkorra.

2. Ekonomia mistoaren krisia

Egungo egoera ekonomikoa eta haren norabidea ulertzeko, beharrezkoa da iragan hurbilean gertatutakoei erreparatzea.

Bigarren Mundu Gerra amaitu zenetik egindako berrikuntzak kapitalismo mota zeharo berri baten barrunean egin dira. Kapitalismo mota horrek «ekonomia mistotzat» du bere burua. Horrek berekin dakar estatuaren esku-hartze ekonomikoa: joan den mendeko politika interbentzionisten aldean desberdina hedaduraz, baina ez horrenbeste erabilitako bitartekoei dagokienez.

Ekonomia mistoan, kapital pribatuaren izatearen eta metaketaren baldintzetan topatzen dituzte estatua-

ren esku-hartzeek beren arrazoiak eta mugak. Nazio mailan egonkortasun soziala lortzeko eta nazioarteko lehian nazioaren interesak babesteko erabilitako botere-mekanismoez gain, funtzio ekonomikoez ere baliatzen da estatua; esaterako, diru-sarrerak lortzeko bide modura (industriako zenbait adarretako aduana-politikak eta estatu-monopolioak, etab.), edo ekoizpen-baldintza orokorreari begira kapital pribatuak bere gain hartu ahal edo ezin izanen duen zama sortzeko bitarteko modura (errepideak, portuak, trenbideak, postetxeak eta abar eraikitzea, hots, ekonomia alorreko jargoian azpiegitura deiturikoa).

Hortaz, neurri mugatuan bada ere, estatuak ere gainbalioa ekoizten du, eta, ondorioz, gai da bere gastuen zati bat bere irabaziekin ordaintzeko. Estatuaren enpresen ekoizpena lehia orokorrean sartzen den heinean, ez da ekoizpen pribatutik ezertan desberdintzen; eta inbertitzen duen kapital kantitatearen eta batez besteko irabazi-tasaren araberakoa da guztizko gainbaliotik estatuari dagokion zatia.

Estatuak zenbait produktu eta zerbitzuren gainean duen monopolioak irabazi monopolistak ekar ditzan-

ke, baina hori erosleei zergak jartzeko beste modu bat besterik ez da.

Arrazoi historikoak eta beste batzuk direla medio, estatuaren eta ekoizpen pribatuaren arteko harremana aldakorra da; are gehiago, herrialdez herrialde aldatzen da. Estatuaren enpresak negozio pribatuen esku utzi eta enpresa pribatuak nazionaliza daitezke; estatuak negozio pribatuen akzioak izan ditzake, edo negoziook bizirik mantendu subsidioen bitartez. Estatuaren ekoizpenak eta ekoizpen pribatuak modu askotan zeharkatzen dute elkar, eta estatuaren zatia ezin da azpiegiturara mugaturik egon. Maila industrialean garapen-prozesuan dauden herrialdeetan, handi samarra da maiz estatuaren parte-hartzea ekoizpenean: esate baterako, Italian, herrialde arketipikoa afera honi dagokionez, kapital pribatuarekin lehiatzen den estatuaren menpeko ekoizpena²⁰ guztizko ekoizpenaren %15 da. Baina, estatuaren ekoizpena izugarri hedatuta ere, ezin da sekula guztizko

20 Istituto per la Ricostruzione Industriale (IRI) erakundearen bidez, Italiako gobernuak finantza- eta industria-enpresa ugari ditu, besteak beste: Alfa Romeo, Alitalia, altzairutegiak, baita petrolioari, telefonoari eta telegrafoari, irratitari, telebistari eta bankuei lotutakoak ere. IRIren enpresak, funtsean, ez dira enpresa pribatuetatik bereizten; kapitalaren merkatu orokorrean parte hartzen dute. Akzioak burtsan erosi edo sal daitezke.

ekoizpenaren zati txiki bat baino gehiago izan, ez bada zalantzan jarri nahi, hain justu, merkatu-ekonomiaren beraren izatea. Hortaz, herrialde guztietan, «ekonomia mistoak», konbinazio bat den heinean, bere horretan eusten dio ekonomiak duen enpresa pribatu izaerari.

Azpiegituren hedapenaren bidez estatuaren ekoizpena handitzeak ere ezer gutxi alda dezake, hedapen hori metaketa kapitalistaren esparruan gertatzen baita eta azken horrek metaketa-beharren arabera erreproduzitzen baitu estatuaren ekoizpenaren eta ekoizpen pribatuaren arteko harremana. Automobilgintza-ekoizpena hedatzeak berekin dakar errepide berriak eraikitzea, aire-zirkulazioa hazteak aireportuen premia duen bezalaxe, eta abar, ez bada nahi ekonomiaren hedapena, oro har, azpiegituren gibelean gera dadin. Zuzena den arren esatea estatuak antolatutako ekoizpen-baldintza orokorren sorrerak kapital pribatuari onura egiten diola, nahiko modu desberdinean bada ere, horrek ez du esan nahi kapitalaren errentagarritasuna hobetzen duenik azpiegituren kostuez haratago. Azpiegituren kostuak kapital pribatuak bere gain hartzen dituen bezala, kapitalaren errentagarritasunaren beharra du azpiegituren, eta ez alderantziz.

Ekoizpen-baldintza orokorrekin agerian uzten dute ekoizpen kapitalistaren izaera ez-soziala, hots, ekoizpen pribatuari ezinezkoa zaiola gizartearen behar orokorrak asetzea. Ideal kapitalista litzateke ekoizpen mota oro modu pribatuan kudeatzea, baita azpiegiturarena ere. Hori, ordea, termino praktikoetan ezinezkoa den heinean, kapitalak estatuari uzten dio ekoizpen pribatua ekoizpen sozialarekin orekatzeko ardura. Hala ere, kapitalak bere gain hartu behar ditu ekoizpen horren kostuak, eta, horregatik, hain zuzen ere, harentzat interes gutxikoa da erabilgarria zaion eremu mugatuaz haraindi hedatzea azpiegitura. Ondorioz, orokorrean, azpiegituraren ekoizpena merkatu-ekoizpenaren gibelean geratzen da. Egoera hori, aberastasun pribatuaren eta pobrezia publikoaren kontraesan den heinean, arranguraz adierazi izan da maiz literatura ekonomikoan.

Krisiaren testuinguruan, estatuak sustatutako ekoizpenaren funtzio nagusia ez da azpiegitura gehiago hedatzea espero den etorkizuneko metaketa kapitalista aurreikusteko eta prestatzeko. Enplegua berehala sortzea du xede, eskari orokorra hazteko. Ekoizpen pribatuak honezkero dituen arazoak ez larriagotzearen, estatuak sustatutako ekoizpenak merkatutik at dauden kontuetan eta gastu publikoan

jarri behar du arreta. Hori dela eta, zati bat ekoizpen-baldintza orokorrak hedatzeko erabil daiteke, eta «kontsumo publikoan» agortu bestea. Ezinbestekoa da estatuak sustatutako ekoizpen mota hori jadanik existitzen den estatu-ekoizpenetik bereiztea, dela ekoizpen-baldintza orokorrak sortzera, dela merkatu orokorrera bideratua badago.

Estatuaren ekoizpenak ez du inola ere ekoizpen pribatua porrotera eramaten, lehena krisiari aurre egiteko martxan jarritako politika bat baita berez. Estatuaren aurrekontu-defizitaren bidez finantzatzen da, nahiz eta epe luzera sektore pribatuari egokituko zaion karga fiskal gehigarria izanen den. Estatuak guztizko ekoizpena bere gaitasunez haraindi hedatzen ahalegindu behar du, eta, hori dela eta, litekeena da estatuak sustatutako ekoizpenaren eragina aztertzen dugunean estatuaren ekoizpen normalari jaramonik ez egitea.

Estatuak ez du inolako ekoizpen-bitarteko propiorik estatuak sustatutako ekoizpen gehigarriaz arduratzeko. Ekoizpen-baldintza orokorrak ekoizteko ere, enpresa pribatuen zerbitzuen beharra du eskuarki estatuak, eta zerbitzu horiek zergen eta estatuaren maileguen bitartez ordaintzen dira. Ekoizpen-

baldintza orokorrak ekoizpen kapitalistak irabaziaz lortzeko aurrebaldintza diren heinean, beren kostua ekoizpen kapitalistaren kostuen parte da objektiboki. Horrela ez denean, estatuak sustatutako ekoizpenaren kostuak guztizko gainbaliotik kendu behar dira, eta ezin dira ez kontsumo kapitalistan ezta metaketa kapitalistan ere erantsi.

Krisiak metaketa kapitalista eteten du, eta gainproduktzio eta langabezia eran agertzen da merkatu mailan. Momentuko kapital-egiturak hedatzeko beharra du, eta egitura horiek asetzeko irabazien ezintasunaren ondorioz sortzen da krisia. Egoera horretan, jada nahikoa ez den gainbalio-masatik beste kenketarik egiteak kapitalaren ataka okertu dezake bakarrik. Hortaz, estatuko maileguen bitartez finantzatu beharra da obra publikoen proiektuen bitartez egindako eskariaren igoera oro, eta zor publiko gero eta handiago baten gisara azaltzen da estatuak sustatutako ekoizpen gehigarria.

Zerga-sistemak argitara dakar neurri handi batean gainbalio-masaren gainera kenkarien bidez ordaintzen dela gobernuaren gastua. Kapitalak une oro eskatzen du bere karga fiskala murrizteko. Hala ere, ez dago estatuaren aurrekontua urtero orekatu beha-

rrik; depresio-garaian sortutako zorrak oparotasun-garaietan kita daitezke. Hori gertatzen ez bada, estatuko maileguen interesa karga fiskal gehigarri bilakatzen da, zeina, hala ere, maila baxuan egonkortu daitekeen ekoizpena hedatzen bada. Ekoizpen soziala zor publikoa baino azkarrago handitzen den artean, azkenak ez dakarkio arazo larririk ekonomiari. Baina, kontrakoa gertatuz gero, zor publikoa zama bilakatzen da ekonomian, baita metaketa-ri berriz ekiteko beste oztopo bat ere.

Hasiera batean, eskari urria konpentsatzeko aldi baterako ordezeko neurri izateko sortu zen estatuak sustatutako ekoizpena, depresioa igaro artean hurrengo gorakada ekonomikoa noiz iritsi modu seguruagoan itxaroteko, eta horregatik erabiltzen zen soilik neurri mugatuan. Kapitala gai ez bazen bere baliabideekin beste gorakada ekonomiko baterako baldintzak sortzeko, obra publikoen bidez azpiegitura hedatzeak ez zuen deusetarako balio. Baten pare dira bi portu huts, baita trafikorik gabeko bi errepide ere. Depresio Handiaren garaian obra publikoek langabezia gutxitu zuten arren, ez zuten ezabatu, eta, depresio luze hura Bigarren Mundu Gerrarekin amaitu zen, ez gorakada ekonomiko berriarekin. Gerra behar izan zen metaketa kapitalista-

rik gabe enplegu betea lortzeko. Kapitala, balioari dagokionez ez ezik, fisikoki ere suntsitu zen. Ameriketako Estatu Batuetan ere, ekoizpenaren erdia inguru «kontsumo publikora» –hau da, gerra-garaiko ekoizpenera– bideratu zenean eten zen metaketa. Aldiz, metaketaren etenaldiak eta kapitalak jasan-dako suntsiketa erraldoiak baldintza egokiak sortu zituen gerraosteko goraldi ekonomikoa gerta zedin.

Krisi ziklikoak kapitalismoa sortu zenetik izan dira harren parte, baina, kapitala garatu egiten denez, krisi-garaiak desberdinak dira, funtsean ez bada, itxuran bederen. Gerraosteko goraldia ezuste handia izan zen, hain zuzen ere depresio-urte luzeen ondo-on-dotik iritsi baitzen, eta azken urteok sakon astindua baitzuten kapitalak bizirauteko eta hazteko zuen gaitasunarekiko konfiantza. Nola azaldu goraldia? Krisiaren teoria marxistaren arabera, garai batean, kapitalak gaitasun handiagoa zuen irabazien eta metaketaren arteko ezinbesteko lotura berrezartzeko, nahiz momentu hartan galdua egon. Kapitalaren balioen mundu mailako suntsiketak eta horrek kapitalaren egituraren ekarritako aldaketek, ekoizpen-bitartekoen hobekuntza teknikoek ahalbidetutako gainbalioaren hedapenarekin batera, ekarri zuten bizirik iraundako kapitalak eta berriki sortutako ho-

rrek kapitala bera hedatzeko nahikoa irabazi-tasa erdiestea ekarri zuten. Hori dela eta, goraldia, iraganeke gainontzekoen gisan, aurreko krisi-egoeraren ondoriotzat hartu zen. Krisia, oster, irabazien sorreraren eta kapitalaren metaketa-beharren arteko neurrigabekeriatzat jo zen.

Gainbalioaren ekoizpenak berezko duen kontraesana zen hemen gakoa: ekoizpen-bitartekoetan inbertitzen denaren arabera jaisten da soldatetan inbertitutako kapital kantitatea, eta, ondorioz, guztizko kapitalaren arabera gutxitzen da guztizko gainbalioa. Kapital-metaketa ez da lehiatik soilik jaiotako beharra, ekoizpen-modu kapitalistak berezkoa duen borroka amaigabetik ere bai baitator; irabazi-tasaren beheranzko joeraren aurkako borrokatik, hain zuzen ere, zeina geroz eta zailagoa bilakatzen den metaketak aurrera egin ahala. Metaketaren eraginez gainbalioa handitzen baina aldi berean irabazi-tasa jaisten denez, irabazi errealek edozein momentutan huts egin dezakete metaketak aurrera egiteko beharrezkoa den maila lortzeko zereginean. Marxek prozesu hori *Kapitala* obran azaltzen duenez gero, ez dago berriro ere hemen azaldu beharrik. Nahikoa izanen da honako hau azpimarratzea: kapitalaren ekoizpen-baldintzetan gertatutako ekoizpen-inda-

rren garapenaren bilgarri kontraesankorra besterik ez dira oparotasun- eta depresio-garaiak.

Ekonomiaren teoria burgesak beste ikuspuntu batek erreparatzen die gertaerei. Haren arabera, ekoizpenaren eta ekoizpen-harremanen ordeztu, merkatuko prezioen harremanak dira ezinbestean kontuan hartu beharreko alderdiak.

1929ko krisiaren ondorioz, indarrez egin behar izan zitzaion uko autorregulatutako ekonomia proposatzen zuen orekaren teoriari. Krisiaren oinarritzat hartu zen eskari eraginkorraren gabezia, kontsumitzaileen beharrek behera egitearen eraginez gertatu zena, eta azken hori inbertsio berrien faltan adierazten zen, eta, ondorioz, langabezian. Baina, azalpen bitxi hori alde batera utzirik, teoria burgesak ere bat egiten zuen ideia harekin, hots, haien ustez, betiko zirudien krisia gainditzeko, ekoizpena suspertu behar zen. Hori ez bazuen ekoizpenak berak lortzen irabaziek determinatutako merkatu-harremanetatik, estatuaren esku-hartzeak erabil zitezkeen ekoizpena suspertzeko; horren adibide argigarria dugu gerra-garaiko enplegu beteak. Ordurako ez zirudienek kapitala gai zenik krisitik bere baliabideen bitartez ateratzeko, eta krisia luzatzearen eta larriagotzea-

ren ondorioz egonkortasun soziala kolokan egoten hasia zenez, bai profesional bai teorialari burgesek politika interbentzionistaren alde egin zuten, ekonomiaren hazkundea sustatzeko, nolabait esateko, eta langabezia amaitzeko.

Ekoizpenaren hedapen errentagarria posible ez zenean, irabaziez aparteko hedapenera jotzen zen, eta, horrela kapital-metaketa zuzenki sustatu ezin bazen ere, beharbada ekoizpena berrabiaraztea lor zitekeen. Irabazirik gabeko ekoizpenak geldirik egotea baino aukera hobea zirudien, metaketa-prozesuari berriz ekiteko bultzada emanen ziola espero zenean batez ere.

Arrazoiketa hori berresteko asmatu zen efektu biderkatzailearen teoria. Biderkatzailearen nozioa lehendik ere aurkeztu bazen ere,²¹ inork ez zuen

21 Obra publikoen bidez izandako efektu biderkatzailea O. T. Mallery ekonomialariak eman zuen aditzera, Lehen Mundu Gerraren aurretik eta ondoren. Hark zioenenez, obra publikoek, enplegua handitu ez ezik, enplegu gehigarria dakarte, aipatu handitzeak erosahalmen gehigarria sortzearen bitartez («A National Policy; Public Works to Stabilize Employment» artikulua [Politika nazional bat: obra publikoak enplegua egonkortzeko], American Academy of Political and Social Science [AEBko Politika eta Gizarte Zientzien Akademia] erakundearen analetan, 1919ko urtarrila). Antzera egin zuen David Friday katedradunak: «Maintaining Productive Output: a Problem of Reconstruc-

R. F. Kahn eta J. M. Keynes ekonomialariek bezain serio hartu eta zehatz azaldu. Haien planteamendu zehatza alde batera utziz, argi dago ezen edozein inbertsio garrantzitsu eta berrik, edozein motatakoa dela ere, ekoizpena handitu behar duela ezinbestean, betiere ez bada beste inbertsioek atzera egiteagatik berehala konpentsatzen. Are gehiago, ekoizpen gehigarri horrek gainbalioa sortuko duela ere bistakoa da. Gainbalio gehigarria ekoizpen-bitartekoetan eta lan-indarrean berrinbertitzen bada, kapital-metaketa ere handitzen da.

Baina dagoen kapitala beste hedapen kapitalista bat justifikatzeko nahikoa errentagarria denean soilik bihurtzen da gainbalioa kapital gehigarri. Krisiak aditzera eman zuen kapitala ez zela metaketa handitu zedin abagunea sortzeko nahikoa errentagarria. Estatuaren ekoizpenak irabazirik ematen ez duenez gero, sektore pribatuko ekoizpen errentagarrian izan dezakeen eraginak zertxobait bakarrik handitu dezake guztizko gainbalioa. Nahiz eta sektore pribatuan gainbalioa handitzea estatuak sustatutako

tion» (Ekoizpen oparoa mantentzea: berreraikitze-arazo bat), *Journal of Political Economy*, 1919ko urtarrila. J. M. Clark ekonomialariak biderkatzaileen eginkizuna ikertu zuen, eta emaitzak *Economics of Planning Public Works* (Obra publikoen plangintzaren ekonomia) obran argitaratu zituen, 1935ean.

ekoizpenaren ondorioz gertatzen den, hazkunde hori bera estatuak sustatutako ekoizpenaren ekoizpen-kostuekin alderatu behar da gainbalio sozialean eragin positiboa izan ote dezakeen erabakitzeko.

Gaizki-ulertuak saihesteko, azpimarratu beharrekoa da ezen, zor publikoaren hartzekodunek beren interesa lortzen duten bezala, estatuak sustatutako ekoizpenean jarduten duten enpresa pribatuak ere lortzen dituztela batez besteko irabaziak eta askotan batezbestekoaren gainetik egoten direla. Aipatutako interes eta irabaziak, ordea, ez datoz merkatutik, baizik eta estatuak martxan jarritako ekoizpena estatuak berak erostetik, hots, gainbalioa barne hartzen duen ekoizpen gehigarria erostetik, eta, hala, aurretiko garai batean sortutako diru formako gainbalio kapitalistarekin «trukatzen» da. Kapitalaren eskuetatik estatuaren eskuetara zirkulatzen duen dirua bere iturburura bueltatzen da, eta diru kopuru hori bat dator estatuak sustatutako ekoizpenaren bolumenarekin. Beste hitz batzuetan esanda, estatuak sustatutako ekoizpenarekin «trukatzen» da jadanik kapitalaren parte zen gainbalioa.

Dirua kapital bilakatzen da gainbalioa ekoizteko erabilitako ekoizpen-bitarteko eta lan-indar bilakatzen

denean; horretan datza, hain zuzen, kapital-meta-keta, eta etengabe erreproduzitzen da. Diruak eta ekoizpen-bitartekoek ez dute kapitalaren ezaugarririk; tasun horiek gainbalioa ekoiztearen bitartez lortzen dituzte lehenbizikoz. Krisi-garaietan, dirua eta ekoizpen-bitartekoak geldirik egoten dira haien erabilerak ez duelako gainbalio nahikoa ekoizten, inondik inora. Erabiltzen ez badira ere, estatuak sustatutako ekoizpenari ekiteko estatuak eskuratu beharreko jabetza pribatu izaten jarraitzen dute.

Estatuak sustatutako ekoizpena ez dago ez kontsumo pribatuaren ezta metaketa kapitalistaren izenpean ere. Hala ere, kontsumoa ere ekoizpenarekin batera handitzen da, estatuak sustatutako ekoizpenetik eta ekoizpena handitzeko kontratatutako langileen soldatetatik «jasotako» gainbalioaren bitartez, baita estatuak sustatutako ekoizpenak ekoizpenean oro har duen eraginaren bidez ere. Haatik, bukaerako produktuak, kontsumo publikoan amaitzen duenak, hura ekoiztean sortutako gastu guztiak gorpuzten ditu oraindik ere. Esate baterako, AEB-ko espazio-ikerketa programak 20 bilioi dolar balio badu, kopuru horrek gizarte osoak lortu beharreko estatu-aurrekontuaren zati bat adierazten du.

Edozein dela ere espazioa ikertzearen lorpenetatik meta daitekeen amaierako irabazi tekniko merkan-
tzen ekoizpenera bideratutako kapitalarentzat, ezin
da kapitalizatu. Izan ere, ekoizpen kapitalistan, kapi-
tala garai zehatz batean amortizatzen da kapitalak
berak ekoiztako merkantziekin, horri esker bizi-
ruten du eta gainbalio eran hedatzen da; estatuak
sustatutako ekoizpenean, aldiz, gainbalioa ekoiztea
eta kapitala amortizatzea estatuaren aurrekontuaren
bitartez gerta daiteke soilik, hots, sektore pribatutik
erauzitako gainbalioaren bidez.

Hala ere, hain modu konplexuan daude estatuak
sustatutako ekoizpena eta ekoizpen pribatua korapi-
latuak, ezen ezinezkoa baita haien arteko muga argi
eta garbi zehaztea. Enpresak bi sektoreetan jarduten
dira aldi berean, eta, teoria ekonomikoaren antzera,
ez dute estatuak sustatutako ekoizpenetik eta sekto-
re pribatuko ekoizpenetik datozen irabazien artean
bereizketarik egiten kasik. Diru-sarrera nazionalak
guztizko ekoizpenaren arabera kalkulitzen dira,
haren banakako osagarrien jatorria edo helmuga
kontuan hartu gabe. Baina, estatuaren aurrekontua
guztizko diru-sarrerak baino azkarrago hazten bada,
ekoizpen errentagarriaren edo ez-errentagarriaren
arteko tarte zabaltzen da. Herrialde kapitalistetan

diru-sarrera nazionalen heren bat inguru estatuaren aurrekontura joateak eta finantza-defizitaren bidez osatzeak erakusten du guztizko gainbalioaren geroz eta zati handiagoa uzten ari dela kapital pribatuaren eraketatik kanpo.

Kontrara, diru-sarrera nazionalak estatuaren aurrekontua eta zor publikoa baino azkarrago hazten badira, esan nahi du estatuak sustatutako ekoizpenaren proportzioa guztizko ekoizpenaren aldean jaisten ari dela, eta litekeena dela metaketa kapitalista neurri berean handitzea. Haatik, gogoan izan behar da estatuak ekoizpena sustatzea dela ekoizpen pribatuaren jaitsiera konpentsatzeko gakoa, eta ez soilik estatuaren gastua handitzea bere horretan, zeren eta beste arrazoi batzuk egon baitaitezke estatuaren gastua handitzeko, hala nola gerraren existentziak edo politika inperialistak.

Maila nazionalean antolatutako kapitalaren lehia inperialistaren ondorioz, estatu-aparatu bat sortu da. Aparatu horrek, estatuak sustatutako ekoizpenetik etekina ateratzen duten kapitalaren erakundeekin elkarlan estuan, botere-posizio erlatiboki independente batean kokatzen du bere burua, eta ekonomiaren gaineko kontrola mantenduz eta handituz

babesten du posizio hori. Hortaz, ez dago beti argi estatuaren aurrekontuak hedatzen jarraitzea zer neurritaraino den estatuak sustatutako ekoizpenaren behar objektiboetatik datorren kontu bat, eta zer neurritaraino den estatuarekin lotura duten *lobbyek* gizartean inposatutako kontu bat.

Estatuak sustatutako ekoizpenaren zatirik handiena, alde handiz, gerra- eta armamentu-industrian dago, hots, kontsumo publikorako ekoizpenean. Ekoizpen hori hedapen baxuaren kausa eta adierazpena da aldi berean. Hain zuzen ere, batetik, baieztatu daiteke ekoizpen publikoa metaketatik baztertzen dela; baina, bestetik, eztabaidagarria da ea hura gabe jarduera ekonomikoa ez ote litzatekeen egonen dagoen baino deprimituagoa. Orain arte gerra eta armamentua kapitaletik banaezinak izan direnez gero, ezinezkoa da zehaztea estatuak sustatutako ekoizpena mugatzeak zer neurritaraino bultzatuko lukeen kapital-metaketa, edo zer neurritaraino gutxituko ekoizpen-jarduera.

Galdera horrek erantzun enpiriko bati buru egin diezaiokeen arren, teorikoki behintzat azter dezakegu. Demagun ez dela oztopo objektiborik metaketa kapitalistak aurrera egin dezan eta gainbalio-masa

erabilgarriaren bidez hazten dela metaketa: kontsumo publikoaren ondorioz gainbalioa galtzeak metaketa gutxitzea ekarriko luke. Printzipioz, zenbat eta kontsumo gutxiago –kontsumoa edozein motatakoa izanda ere–, orduan eta gehiago metatu daiteke. Izan daiteke, baina ez du zertan. Metaketarekin jarraitzeko behar diren irabazi-baldintzek kontsumoaren kontura lorturiko momentuko gainbalioa gaindi dezakete, egungo kapitalaren egituraren eta esplotazio-tasaren artean aldea dagoelako, eta, beraz, kapitalaren egitura aldaketak eginez eta lan-produktibitatea handituz soilik haz daiteke kapitalaren balioa. Baldintza horietan, kontsumo publikoa mugatzeak ez luke inolako eraginik metaketan, eta krisi kapitalistak gizarte-aldaketak ekarri beharko lituzke, kapitalak metaketa-prozesua aurrera eramanez ahal izateko.

Bigarren Mundu Gerraren ondoren jarduera ekonomikoa suspertu izana ez zen soilik estatuak sustatutako ekonomiari esker izan; pisuzko faktorea izan zen kapitala gai izan zela beste behin depresiotik atera eta beste oparotasun-garai bati ekiteko, kontsumo publikoa handitu izanagatik ere. Arestian adierazi bezala, gerrek, depresioek, aurrerapen teknologiko azkarrek eta mundu mailan kontsumoa murriztu iza-

nak aldaketak ekarri zituzten nazioarteko egituretan, eta horrek metaketa-tasa altua ekarri zuen hainbat herrialdetan aldi berean. Gerrak suntsitutako azpiegitura berreraiki eta gerran alde batera utzitako kapitalaren erreprodukzioari berriz ekitearen ondorioz, aribideko botere-politika inperialistak eskatzen zuen kontsumo publiko altu samar batekin batera, «mirari ekonomikoa» gauzatu zen herrialdeak berre-raikitzeko orduan, eta AEBren kapitala mundu osora zabaltzea ekarri zuen. Horrek guztiak zera besterik ez du adierazten, ekoizpenean sortutako gainbalioa nahikoa izan zela metaketa kapitalistaren eta kontsumo publikoaren beharrak asetzeko.

Bere barne-dinamika berreskuratutako kapitalismoak, ordea, kapitalismo nagusiki geldiaren teoriari aurre egin behar izan zion. Depresioan zehar garatu zen aipatu teoria, eta, haren arabera, soilik estatua-ren esku-hartzearekin lor zitekeen enplegu betea. Herrialde batzuk gerturatzen ari ziren enplegu betera; beste batzuek, mementoan behintzat, lortua zuten jada. «Ekonomia berriarentzat» hori froga nahikoa zen estatuak ziklo ekonomiko kapitalista amaitzeko ahalmena zuela baieztatzeko, hots, politika monetario eta fiskalen bidez, estatua gai zela noiznahi ahulduriko ekonomia alderantzikatu eta

enplegua desiratutako mailan mantentzeko. Ustez, bi modu zeuden hori egiteko; zeharka, sektore pribatuari kredituen baldintzak arinduz, edo zuzenean, finantza-defizitak ahalbidetutako kontsumo publikoaren bitartez. Estatuko gastua handituz gainditutako atzeraldi-garaiek goraldi ekonomikoa hondatu zutenez, garbiago ikusi zen estatuak merkatu-ekonomia gidatu zezakeela eta krisi kapitalistak iraganezko kontua zirela.

Kontsumora bideraturik ez dagoen gainbalioaren zati bat ez denean inbertitzen ekoizpen-bitarteko eta lan-indar gehiago lortzeko, metaketa-prozesua eteten da, eta, horretan badatza krisiaren zergatia, ekoizpena eta enplegua nahitaez gutxitu behar dira. Hala ere, kapitalaren funtzionamendu orokorrean, ondorioak ekoizpenean egindako murrizketetatik haratago doaz. Murrizketak krisi orokor bilakatzen dira merkatu-harreman zeharo korapilatsuen ondorioz. Estatuak sustatutako ekoizpen-goraldiak eta horrek merkatu-harremanetan dituen ondorioek zailtzarik gabe egiazta dezakete hurrengo atzeraldi ekonomikoa, baldin eta mugatua eta bitarteko mugatuekin erraz gainditzen bada. Eta, egiaz, estatuak hartutako kontrapisuzko neurriekin gainditu dira gerraosteko garaian zehar ekonomian agertutako

oztopo periodikoak. Ez dirudi, baina, hala izaten jarraituko duenik datozen garaiotan. Kriaren lehen zantzuak agertu direla adierazten du soilik, oraindik ere ekoizpen pribatuaren beherakada gastu publikoa hedatzearekin konpentsa litekeen egoera batean. Bada, Bigarren Mundu Gerraren aurreko depresio-garai arras luzearen atzetik, goraldi-garai arras luzea etorri zen, eta estatua gai izan zen haren barne-gorabeherak modu positiboan kontrolatzeko. Gorabeherok gorakada orokor baten barnean ari ziren gertatzen, ez gainmetaketak sortutako krisi orokor baten barnean. Oraindik ez dugu izan nahikoa esperientziarik horrelako krisi bati kapitalismoaren menpeko estatuaren bitartekoak erabiliz aurre egin dakiokeela zehazteko, nahiz eta estatuak esku hartzeko dituen mugak argi eta garbi hauteman daitezkeen.

Aurreko ekoizpen-garaietako gainbalioak, zeina diru eran mantendu edo kriaren ondorioz geldirik daudden ekoizpen-bitarteko bilakatu den, bere funtzio nagusia galdu du, eta soilik irabazien ekoizpenarekin berreskura dezake. Aukera hori posible ez denean, estatua gai da inbertitu gabeko dirua eskuratzeko eta, era horretan, erabili gabeko ekoizpen-bitartekoak erabiltzeko. Baina horrela ere ez dute beren

funtzio nagusia berreskuratzen. Modu horretan mobilizatutako dirua eta ekoizpen-bitartekoak kontsumo publikoan erabiltzeko produktu bilakatzen dira, eta, ondorioz, guztizko kapitalaren erreprodukzio-prozesutik kanpo gelditzen dira.

Prozesu horretatik sor daitekeen beste edozer dela ere, diru gehigarri eta ekoizpen-bitarteko gisako gainbalioaren ekoizpen izateari uzten dio kontsumo publikora bideratutako ekoizpenak. Orduan, erabilitako kapital handiagoaren gainbalioa txikiagoa da guztizko kapitalaren aldean. Jadanik metatutako kapitalaren zati batek, bere funtzio nagusia galtzeaz gain, erabili gabeko kapitala izateari uzten dio. Hala ere, krisi-garaian suntsitutako kapitalak guztizko irabazien eta guztizko kapitalaren arteko harremana aldatzen du, halako moldez, non kapitalaren balio murriztuak irabazi-tasa handitzen duen suntsitutako kapitalaren kontura. Estatuak kontsumo publikorako sustatutako ekoizpenaren kasuan, bertan erabilitako diruaren eta ekoizpen-bitartekoen irabazi- eta interes-errekamazioak bere horretan mantentzen dira, ekoizpen mota hori irabaziak lortzeko ekoizpen izanen balitz bezala eta kontsumo publikoan kapitala suntsitu izan ez balitz bezala. Hortaz, azken batean, ekoizpen mota horrek ez dakar hobekuntzarik ira-

bazi-tasan, zeina suntsitutako kapitalaren balioen eta haiei erantsitako irabazi sozialen erreklamazioen emaitza gisa ekoizten den krisi garaian; aitzitik, kapitala suntsitu eta haren irabazi-erreklamazioak mantentzen dira, zeinak guztizko gainbalio sozialekin soilik ase daitezkeen.

Sektore pribatuko guztizko etekinaren zati hori estatutuak sustatutako ekonomian parte hartzen duten kapitaleko entitateetan metatzen da, eta guztizko etekinetik kendu behar da, zergetatik datorren diru-sarrerara denez gero. Horrek berekin dakar kapital produktiboaren, hots, errentagarriaren irabazi-tasa jaistea, eta, ondorioz, eragozpenak sortzen dira metaketan. Hala ere, kapitalaren entitateek prezioak igoz konpentsa ditzakete gutxitutako irabaziak; horrela, estatutuak sustatutako ekonomiaren kostuen zama gizartearen gain uzten dute.

Hortaz, kontsumo publikoa handitzeak prezioen inflazioa dakar, krisiari aurre egiteak sortutako kostuak biztanleria orokorraren –hau da, langileriaren– bizkar uzteko saiakeraren emaitza gisa.

Horrela, kapital pribatuaren errentagarritasuna kapital-metaketa handiagorik kontuan hartu gabe man-

tentzen da. Era horretan, langile gehiago lanean jartzea lortzen da, langile-biztanleriaren guztizko diru-sarreraren kontura. Aipatutakoa bitarteko inflazionisten bidez erdiesten da, iraganean hautatutako jardunbide deflazionistaren bitartez baino, deflazioak pixkanaka desentplegua handitzen baitzuen. Baina, langileek jasan ditzaketen zamek muga zehatzak ditzutenez gero, eta prezioen inflazioak eragindako soldata errearen jaitsierak langileon erresistentziarekin bat egiten duenez, langile-klasearen kontura kontsumo publikoa finantzatzeko zeharkatu ezinako mugak jotzen ditu, lehenago edo beranduago bada ere. Hortik abiatuta, kontsumo publikoa handitzen jarraitzeko modu bakarra kapitalaren lepotik da.

Kapital-metaketa eteten bada, krisia sakondu eta langabezia handitzen da. Estatuak sustatutako ekoizpenak halabeharrez zabaltzeko beharra du orduan, ziklo konpentsatzailearekin aurrera egiteko. Ondorioa kapital produktiboaren irabazi-tasaren presioa handitzea da, zeinak geroz eta zailagoa bilakatzen duen metaketari berriro ere ekitea, eta, era horretan, depresioa luzatzen da. Estatuak sustatutako ekoizpenak zabaltzeari uzten ez badio, krisia larriagotzen duen beste faktore bat bilakatzen da, hasiera batean hura gainditzeko bitartekoa izan eta

tarte batez funtzio hori bete badu ere. Baina soilik ekoizpen materialari dagokionez izaten du efektu hori, kapital-metaketa handitu gabe. Ez du behar beste irabazi sortu, kapitalaren errentagarritasuna jaistearen kontura ekoizpena handitzeko adina soilik. Depresioak jarraitu bitartean, gaitasun hori ere galduko da; estatuak sustatutako ekoizpena zabaldu ahala, ekoizpen pribatua jaitsi beharko da halabeharrez, eta, ondorioz, jada ez da gai izanen handituta-ko kontsumo publikoa ezkutatzeko.

Kapitalaren mugimendu ziklikoak krisia iraunkorki ezartzea galarazi du oraingoz, eta ez dago froga empirikorik irabazirik gabeko ekoizpena soilik ekoizpen errentagarriaren kontura posible dela eta, hortaz, azken horrek lehena mugatzen duela egiaztatzen duenik. Harira datorren kontua, ordea, kapitalak behar adina irabazirik gabe metatzeko duen ezintasunaz jabetzea da. Ekoizpena handitzeak irabaziei dagokiena handitu gabe ez dio kapitalari kapital gisa balio, nahiz eta gizarte kapitalistari baliagarria izan dakioken arrazoi politikoak direla medio. Estatuak sustatutako ekoizpenak sektore pribatuan izan ditzakeen berehalako ondorio positiboak ere deusezta daitezke estatuko ekoizpen konpentsatzailerekin luzaroan jarraitzearen ondorioz. Kapitalak

ez badu bere kabuz aurrera egiten bere baldintza propioetan metaketari berriz ekiteko, estatuak sustatutako ekoizpenak emandako bultzadak bere indar eragilea galduko du pixkanaka, metaketarentzat oztopo bilakatzeraino.

Estatu-sektoreko ekoizpena sektore pribatuko irabaziei loturik dago, eta lehenaren hedapena bigarrenaren igoeraren arabera da. Hori gertatzen ez bada, sektore pribatuko egoera okertu besterik ezin da egin, harik eta estatu-sektorea gehiago hedatzea objektiboki ezinezko bilakatu arte. Baina kapital pribatuak, «ekonomia misto» batean ere gizartea kontrolatzen duen horrek, muga objektiboetara iritsi baino askoz lehenago utziko lioke sektore publikoan hedatzeari. Estatuak sustatutako ekoizpenak soilik kapitalak jasan dezakeen neurriraino du hedatzeko baimena, hots, kapitalaren izate eta handitze etengabea zalantzan jartzen ez duen artean. Hortaz, aldi baterako neurritzat har daiteke, gainbehera kapitalistaren une zehatz batean geldiarazi behar dena eta era horretan gainbehera horren aurka egiten duen faktorea izateari utziko diona.

Izan ere, gerrako ekoizpenaz gain, estatuak sustatutako ekoizpena ez da hedatu kapitalismoa geldi sa-

mar zegoenean, goraldi batean baizik, eta hori ekonomia mistoaren fruitutzat hartu da. Errealitatean, baina, kontrakoa zen egoera. Errentagarritasuna berreskuratzearen eraginez egondako goraldia aski handia izan zen, eta, are, kontsumo publikoa pixkanaka handituz joan zen arren, oparotasun-egoera erlatibo bat lortu zen, termino kapitalistetan ulerturik. Estatu-ekonomiaren politiken zeregina atzean gelditzen ari zen ekoizpena handitzea zenez gero, estatutak sustatutako ekoizpena murriztea eragin behar zuen igoera ekonomikoak; halakorik, ordea, ez zen gertatu. Zalantzarik gabe, ekoizpenaren hazkunde orokorrari dagokionez, estatuaren sektoreak motelago jarraitzen zuen handitzen, aurrekontu-defiziten praktika gutxitu zen, eta defizit horien tamaina txikiagotu; estatuaren defizitak, hala ere, gora egitzen jarraitu zuen, nahiz eta lehen baino mantsoago. Sektore pribatuaren hedapenari dagokionez, egoera horrek ezin hobea zirudien, garai hartako teoria ekonomikoaren ikuspuntutik ez ezik, baita kapitalarentzat berarentzat eta kontsumo publikoan interes pertsonalak zituzten horientzat ere.

Baina, kontsumo publiko altu samarra egonik ere, bere kasa hazten jarraitutako kapitala estatu-ekonomiaren politikaren eraginpean zegoen hein handi

batean, hau da, haren moneta- eta kreditu-alderdien menpe; ez hainbeste, ordea, fiskalen menpe. Ekoizpen kapitalista osoa aspalditik oinarritzen zen kreditu-mekanismoan. Kredituak, baina, errentagarritasun maila konkretu bat mantentzea behar izateaz gain, hedatzeko baldintza mugatuak zituen, estatuak dirua eta kredituak kontrolatzen baitzituen, muga horiek malguak ziren arren. Kredituaren bidez, krediturik ez dagoenean dituen mugez haraindi handitu daiteke ekoizpena. Hala, estatuak sustatutako ekoizpen gehigarria ahalbidetzen du kredituak, hots, zor publikoak. Era berean, sektore pribatuko ekoizpena kreditu-mekanismoa zabalduz handitu daiteke. Dirua sortzeko eta kreditua handitzeko duen boterearen bidez, estatua gai da kredituaren oinarria hainbat eratan handitu edo txikitzeko. Hein handi batean, kreditu kopurua eta interes-tasak kontrolatu daitezke, banku-maileguak suspertu, eta ekoizpena, beraz, handitu. Hori guztia diru merkearen politikaren, diru-eskaintza handitzearen, banku zentralen deskontu-politikaren eta «merkatu irekieren politika» deiturikoaren bidez lor daiteke.

Goraldiak diru-eskaintza eta kreditua azkar haztea ekarri zuen, eta bi alderdiri dagokionez josi zen. Lehenik, ekoizpena handitzen lagundu zuen, eta,

bigarrenik, diru-sarrera sozialak birbanatu ziren, kapitalaren mesederako. Kredituaren hedapen orok inflaziora jotzen du, eta bereziki inflazionista da estatuak sustatutako diruan oinarritutakoa eta kredituzkoa den hedapen sistematikoa. Hori nahikoa ez, eta irabazirik gabeko estatuak sustatutako ekoizpenaren eragin inflazionista ere badugu. Baina inflazioa, zeina hasiera batean isilean handituz zihoan goraldiak ziztu bizian aurrera egin ahala, hazkunde ekonomikoa gertatzeko ordaindu beharreko prezio gisa onartu zen, baita kontrolpean izan zitekeela pentsatu ere. Edozein kasutan, nahiago zuten hazkundea gerta zedin –horrek inflazioa bazekarren ere–, ekonomia geldi eta deflazionista izan baino; izan ere, argudiatu zen hazkundeari loturik zihoakion inflazioa enplegu betearen eta finakoaren, bai eta egonkortasun ekonomikoaren sekretuaren adierazpena zela eta «ekonomia berriak» aurkitu zuela.

Errealitatean, inflazio-tasa gero eta handiagoak goraldiaren barne-ahulgune bat adierazten zuen; hain zuzen ere, ez zion estatuari uzten hedatzen ari zen diru- eta kreditu-politika eteten, ezta kontsumo publikoa neurri batean murrizten ere. Kreditua murrizteak, diru-eskaintza gutxitzeak eta kontsumo publikoa txikiagotzeak berehalako ondorio negatiboak

zituenez ekonomiaren bilakaeran, alde batera utzi eta berriz ere ekin zioten politika inflazionistari. Horrela, Bigarren Mundu Gerraren ondoren egondako oparotasun-olatutik, hein batean estatuaren politika monetario eta fiskalen beharra zuten mugimenduak atera ziren, nahiz eta herrialde batzuetan gai izan ziren enplegu betea lortzeraino eskari orokorra handitzeko.

Jakina, diru- eta kreditu-politikek ezer gutxi alda dezakete errentagarritasunari eta irabazi eskasei dagokienez. Irabaziak ekoizpenetik lortzen dira soilik; langileek ekoiztiko gainbalioetik, hain zuzen ere. Kapitalak bere burua maila handiagoan erreproduzitzeko adina gainbalio badago, oparotasun kapitalistaren garaia ezartzen da. Baina eskaria suspertze-ko diru- eta kreditu-politikez gizendu beharra bada hedapen kapitalista, denbora gutxian argi gelditzen da irabazien ekoizpena ez doala ongi. Kreditua handitzea beti hartu izan da krisia datorren seinaleztat, islatzen baitu nolako ahalegina egiten duten kapitalaren entitate indibidualek, lehia areagotu arren, hedatzeko eta, ondorioz, krisitik bizirik irteteko. Kreditua betidanik izan da errentagarritasuna jaisten den bakoitzean kapitala kontzentratzeko modu bat. Kreditua handitzeak krisia tarte laburrez saihesteko

balio izan duen arren, ezin izan du inoiz galarazi krisia gerta dadin, azken finean faktore erabakigarria izan baita guztizko etekinen eta kapital sozialak balihoa hedatzeko duen beharraren arteko harreman erreala, eta kredituak ezin du hori aldatu.

Kredituak ez, baizik eta horri esker ekoizpena igotzeak handitzen du gainbalioa. Esplotazio-tasak determinatzen du, orduan, kredituaren hedapena. Eskari orokorra susta dadin, irabaziek gora egin dezaten lortu behar dute estatuak inposatutako diru- eta kreditu-politika hedakorrek. Irabaziak ez badira inbertitutako kapitala eta handitutako ekoizpena bezainbeste handitzen, baina kredituak posible egindako ekoizpen maila mantendu behar bada, kapitalaren eta lanaren arteko produktu sozialaren banaketa aldatu behar da kapitalaren errentagarritasuna segurtatzeko. Prezioak soldatak baina azkarago igotzen badira, zirkulazio-prozesutik hartzen da ekoizpenean langileengandik erauzi ezin izan den hori. Horixe bera da dirua eta kreditua handitzearen zergatia eta ondorioa aldi berean, eta, hortaz, areagotzen ari den inflazio gisa azaleratzen da irabazien hazkunde inflazionista.

Hedatzen ari zen diru- eta kreditu-politikak irabaziaz handitzeko balio zuen neurrian, kapitalaren ekoizpena sustatzen zuen, nahiz eta aldi berean errentagarritasun eskasaren adierazgarri izan, isilean gorderik eduki eta estatuko zorrei zor pribatu askoz handiago bat gehitu. Pixkanaka handituz zihoan zorra mantentzeko modu bakarra kreditua handitzeari esker metaketa kapitalistak etenik gabe aurrera egitea zen. Metaketa eteteen, diru- eta kreditu-politiken bitartez handitutako ekoizpena ere eteten da, eta haien eragin progresiboa alderantzikatu egiten da. Baina, metaketak berekin dakarrenez gero irabazi-tasa txikitzea, diru- eta kreditu-politikan eta estatuak sustatutako ekoizpen-bitartekoetan oinarritutako ekonomia-kudeaketak metaketa-prozesuaren kontraesanekin talka egiten du.

Gerra osteko goraldiaren berezko beste ahulezia bat zera izan zen, herrialde kapitalisten artean desberdin banatu zela, eta zer esanik ez herrialde azpigaratueta izandako ondorio negatiboak buruz. Nahiz eta azken ondorioa mesedegarria zen herrialde kapitalistetan hazkundera gertatzeko, lehengaiak lortzeko iturri merkea segurtatzen baitzien garatutako herrialdeei, garbi geratu zen goraldia ez zela nahikoa indartsua mundu osoko ekonomia bildu

eta, horrela, orokorra bilakatzeko. Soilik Europa-ren mendebaldeko herrialdeetan eta Japonian zen metaketa-tasa altua; Ameriketako Estatu Batuetan, batezbesteko historikoaren azpitik jarraitzen zuen, eta, munduko gainerako tokietan, geldirik zegoen, oro har. Baina Europaren mendebaldean eta Japonian gobernu-politikek sustatutako inbertsioen erritmoak ohiz kanpoko oparotasun iraunkorra ekarri zuten. Lan-produktibitatea azkar handitzearen eta Europaren eta Japoniaren kapitalaren egitura zehatzaren ondorioz, bizi-maila orokorra igo zen. Nahiz eta hazkunde-tasa altuek oztupoak zituzten noizean behin, azkar gairatzen ziren atzeraldiak. Dena den, Ameriketako Estatu Batuetan ez zen erdietsi enplegu betetik eta ekoizpen-gaitasunen erabateko erabilerarik.

Goraldi ekonomikoak lagun zuen inflazio geroz eta handiagoa, eta hura zen goraldiaren beraren eramaila aldi berean, baina baita kontraesan immanente baten seinale ere, goraldiaren jarraipena areagotzen ari zen inflazio-tasaren araberakoa zen heinean. Prezio- eta diru-politiken bitartez konpentsatu beharreko irabazi eskasen adierazle da inflazioa. Ondorioz, garapen-bidean dauden herrialde kapitalistetan – Brasilen, esaterako–, irabaziak metaketaren abiadu-

ra berean jartzeko hautatutako neurria da inflazioa, hots, hedapena langile-klasearen kontsumoaren kontura azkartzeko, edo esportazioak sustatzeko, edo biak batera. Gisa horretan, inflazioak edozein egoeratan dakar irabazi handiagoen beharra, dela kapitaleko entitate partikular baten irabaziak lortzeko beharra, dela metaketari bultzada emateko ahalagin orokorra.

Metaketa kapitalista lanaren eta kapitalaren arteko borroka da, eta, muga zehatz batzuen barnean, borroka horrek determinatzen du zenbat gainbalio ekoizten den. Baina, aldi berean, kapitalak nazio eta nazioarte mailan aurrera eramandako borroka lehia-korra da metaketa, gainbalioa banatzeko modua determinatzeko. Moneta-politikak bi borroketan du eragina. Inflazioak lana merkatzen du, eta horrek kapital nazionalak lehiatzeko duen gaitasuna hobetzen, baina soilik inflazio-tasa desberdina denean herrialdez herrialde, eta hori herrialdeetako klase-borrokaren eta nazio bakoitzak munduko ekonomia-
ren barnean duen posizio ekonomikoaren menpe dago. Moneta-politika ere izan da nazioarteko lehia-
ren borrokarako arrazoietakoa bat. Aldi berean, baina, burgesiari lehia baretzea interesatzen zaionez, etengabekoak dira nazioarteko hitzarmenen bidez

moneta- eta kreditu-harremanera ordena ekartzeko saiakerak.

Ekonomia kapitalista mundu mailako ekonomia bat da, eta haren existentziak bere gain hartzen du lehia. Lehiak kapital-kontzentrazioa bultzatzen du, bai nazio mailan, bai nazioarte mailan. Baina nazio mailan lehia modu progresiboan ezabatzeak sistematik berezkoak dituen kontraesan guztiak larritu besterik ez du egiten; izan ere, kontzentrazio eran azaleratutako metaketak irabazi-tasaren gaineko presioa areagotzen du, eta, ondorioz, gizarte-gatazka guztiak gaiztotzen dira. Era berean, antagonismo kapitalistak gutxitzen diren seinale baino gehiago, aipatu antagonismoei izaera inperialista argiagotzea ematen die nazioarteko kapital-kontzentrazioak, bi mundu-gerrek eta hainbat gerra lokalizatuk orain arte agerian utzi duten bezala.

Krisi kapitalisten antzera, norgehiagoka inperialista ekonomia kapitalistaren kausa eta ondorioa da, eta ezin da kapitalaren metatzeko beharretik bereizi. Hortaz, ezin da gerraosteko goraldia abstraktuki ulertu, kapitalaren mugimendu ziklikoaren ondorioa balitz bezala, baizik eta Bigarren Mundu Gerrak indar politikoetan ekarritako aldaketan ondorio gisa,

baita aldaketa horiek nazioarteko lehia izandako eragin gisa ere; izan ere, hein handi batean, potentzia irabazleen artean sortu ziren norgehiagokek baldintzatu zuten goraldia, hots, beren konkistak finkatu eta botere-posizioak are gehiago zabaltzeko zereginari aurre egin behar zioten potentzien artekoek.

Argi dago Mendebaldeko Europako eta Japoniako ekonomia kapitalisten berreraikitze erlatiboki azkarra AEBren laguntzak sustatu zuela hasiera batean, kontsiderazio inperialistekin eskainita; kredituak jaso ez ezik, herrialde horien esportatzeko ahalmenak sekulako pizgarria jaso zuen AEBko anbizio inperialista handien eskutik. AEBko metaketa-tasa erlatiboki baxua eta gerra- eta armamentu-ekoizpenak eragindako irabazi-tasa murriztua zela eta, AEBren kapitalak etekin handiagoak zain zituzten herrialdeetara esportatu behar izan zuen bere kapitala, eta horrek jada puzturik zegoen inbertsio-tasa handitu zuen. Baina jarduera frenetiko hark, AEBko kredituaren hedapen etengabearekin batera, inflazioa herrialde batetik bestera hedatzea ekarri zuen, mundu mailako fenomeno bihurtzeraino.

Japoniako eta Mendebaldeko Europako hazkunde ekonomikoak aurrera egiten zuen heinean, herrialde horiek mundu mailako merkatuarekin –AEBekin batez ere– zuten harremana aldatuz joan zen. AEBren eta beste herrialde kapitalisten arteko lan-produktibitatearen arrakala, zeina inbertitutako kapitalaren bolumenaren eta berezkoa zuen amaieraren menpe zegoen, gero eta estuagoa zen, eta AEBk mundu mailako merkataritzan zuen partaidetza menderatzailea neurri berean murriztu zen, harik eta AEBren merkataritza-balantza negatiboa izan zen arte. Pagamendu-balantza negatiboa zen aspalditik, politika inperialisten kostua eta kapital-esportazioen hasierako noranzko bakarreko fluxua zela eta. Beraz, Europaren hedapena posible izan zen, neurri batean, AEBren pagamendu-balantza negatiboaren eta horrek zekarren moneta- eta kreditu-politika inflazionisten ondorioz. Hedapen inperialistaren tresna bilakatu zen AEBren moneta-politika, AEBren eragin-eremuek mundu mailako botere-politiketan toki zutela ziurtatzeko ez ezik, baita beste herrialde batzuetan inbertsio zuzenak handitzeko ere, gartzen ari zen Mendebaldeko Europan bereziki.

Mundu mailako ekonomia osotasun gisa ulerturik, ez du ardura kapitala zer naziotan metatzen den,

nahiz eta ikuspegi nazionaletik prozesu horrek berak beste itxura bat izan. Kapitala libreki mugi daitekeen artean, irabazirik handienak lortzea aurreikusten den tokietan inbertitzen da, eta, hortaz, jarduera ekonomiko orokorra sustatzen da, inbertitutako kapitalaren mesedetan. Herrialde kapitalista guztiek kapitala esportatzen eta inportatzen dutenez gero, esan daiteke ezen, AEBk esportatutako kapital kantitate izugarri handiari loturik, AEBk beste herrialde batzuetan euskarri sendoa lortzeko aukera baliatu besterik ez zuela egin, eta aukera hori gerraosteko egoeraren berezitasunetatik eta estatuko moneta-eta kreditu-politiketatik sortu zela. Atzerriko inbertsio zuzenek eta haien kopuruak AEBn jada abian zen inflazio orokorra bizkortzea besterik ez zuen ekarri. Nolanahi ere, prozesu horiek, goraldiaren beraren gakoa ez baziren ere, haren izaera inflazionista nabariaren adierazpena ziren.

Hain zuzen ere, mundu mailako ekonomia osoko merkatuaren iragan hurbileneko eta orainaldiko gorabehera guztiek jatorri dituzte aipatutako prozesuok. Soilik merkatuarekin erlazionatu daiteke, noski, kapitala, eta haren aurrean modu batez edo bestez erreakzionatu. Eta, gainera, soilik merkatu-prozesuetan saiatzen da estatua onuragarritzat

edo beharrezkotzat jotzen dituen moduen bidez eragiten.

Hala ere, azterketari eta jardun praktikoari itxirik jarraitzen du ekoizpen errentagarriaren eremuaren azpian den egoerak, metaketaren bilakaera erabakitzen duen faktorea izan arren. Bere izaerarengatik, ekoizpen-modu kapitalistak gizarte osoko ekoizpen-harremanak ulertzeko modu enpirikoa baztertzen du, eta merkatua bilakatzen da erabaki kapitalista guztientzat erreferentziazko puntu, nahiz eta erabakiok ekoizpen-esparruan gertatzen diren prozesuen eraginpean diren oraindik. Haatik, merkatu mailan ezarri behar dira, lehiak zehaztutako baldintzetan, ez dadin modurik egon jakiteko erabaki horiek bat ote datozen ekoizpen-esparruko errealtateekin. Egoera edozein dela ere, kapital indibidualaren eta, hortaz, osotasun gisa ulertutako kapitalaren mugimendu guztiek helburu dute etekinak handitzeko egoera mantentzea. Ondorioz, mugimenduok bat datoz ekoizpen-esparruko prozesuekin, baina horrek ez du bermatzen arrakastatsuak izanen direnik. Irabaziak bilatzea ez da nahikoa irabazirik lortuko dela segurtatzeko, eta soilik jadanik metatutako kapitalaren handitze-beharrak asetzeko egun ekoizten ari den gainbalioak ekoitz ditzake irabaziak. Gainbalioaren

magnitudea, ordea, kopuru ezezaguna da, eta soilik ziklo ekonomikoaren gorabeheretan adierazten da, zeharka.

Mendebaldeko herrialdeen ziklo ekonomikoa inflazioak jota zegoela egia izan arren, hazkunde ekonomikoa ere ekarri zuen, zeinak iritzi publikoaren begietan oparotasuna adierazi eta goraldi jarraitu eta agian iraunkor baten itxaropena piztu zuen. Areagotuz zihoan inflazio-tasak, ordea, honako hau argi uzten zuen: hazkunde ekonomikoarekin jarraitzeko behar zen errentagarritasun mailari eusteak gobernuaren diru- eta kreditu-hedapenaren menpekoago bilakatzea eskatzen zuela eta, neurriok gabe, hazkundeak behera eginen zuela. Hortaz, hazkunde ekonomiko jarraitua estatuko diruaren eta politiken menpeko zen, eta, horiek ahalbidetzeko, iraganeko garapenak bidean jarritako oztopo guztiak kendu behar izan ziren. Ondorioz, helburu hori lortzeko lehen neurria diru-merkantzia nazio mailan abolitzea izan zen, eta ondoren etorri zen nazioarteko erre-serba-monetaren urre-bihurgarritasuna nazio mailan abolitzea.

Ekoizpenak behera eta langabeziak gora egiten jarraitu zuten; inflazioa ez zen txikitzen; eta, azkenean,

agerikoa bilakatu zen metaketa kapitalistaren krisirako joera ezin zela ezabatu estatuak ekonomian esku-hartzearekin. Inflazio-tasa geroz eta handiagoak ere ezin zuen irabazi errealean gainbehera saihestu, ez baitzen etorkizuneko irabazien aurreikuspenean hein batean oinarritutako kreditu-hedapenaren kanpoko isla besterik. Moneta- eta kreditu-politika hedakorrek prezioak garestitu baino ez zuten egiten, ekoizpena nabarmenki handitu gabe. Irabaziak jaus-ten ari zirenez, kapitalistek ez zuten inbertitu nahi, eta prezioak igotzera jo zuten, galerak berreskuratzeko. Monopolioek prezioak arbitrarioki finkatzeko zuten botereak erraztu egin zuen prozesu hori, zeina moneta- eta kreditu-politiken barnean garatzen ari zen jada. Finean, ekonomia kapitalistarentzat, deflazioak okertutako krisi-egoera bezain kaltegarria zen berebiziko abiaduran haztearekin mehatxatzen zuen inflazio-tasa gorakorra. Moneta- eta kreditu-politikak errotik aldatuz, inflazioa amaitu daiteke, jakina; baina ez, ordea, irabazi eskasia, eta horrek prezioen inflazioa bizkortzen du. Moneta- eta kreditu-hedapenean edozein murrizketa egitea jarduera ekonomikoaren gainbehera are handiagoan eta langabeziaren igoeran islatzen da. Gobernuek, hortaz, uzkur egiten diote beren moneta- eta kreditu-politikak errotik aldatzeari. Haatik, moneta- eta kredi-

tu-politika espantsiboak egonda ere jadanik krisia begien bistako errealitatea denez gero, gobernuek bi gaitzen artean erabaki behar dute, eta, baldintzak ikusita, bien artean txikiena iruditzen zaiena hartzen dute. Inflazioa geldiarazteko kredituak murriztu eta diru-eskaintza gutxitzen da, edota estatuak prezioak eta soldatak erregulatzen ditu; egoera kritiko batean, alabaina, gobernuek neurri deflazionistak alde batera utzi, eta politika inflazionistara bueltatuko da. Deflazio- eta inflazio-dosi alternatiboak aplikatuz, inflazio-prozesua eteteko eta, aldi berean, desintegrazio ekonomiko azkarra saihesteko saiakerak egiten dira, lehenago edo beranduago errentagarritasuna hobetu eta atzeraldi ekonomikoa geldiaraziko den itxaropenarekin.

Munduko ekonomian lortutako integrazio mailak segurtatzen du krisiaren eta goraldiaren agerraldiak nazioarteko dimentsioa hartzen dutela, nahiz eta litekeena den hasieran agerraldiok soilik herrialde jakin batean agertzea. Europako eta Japoniako goraldiak Ameriketako Estatu Batuetako kapital-hegapenean izandako ondorio positiboa, esaterako, errentagarritasun maila altuagoko korporazio multinazionalen zabalpenean islatu zen. Baina behera-kada bakoitza ere nazioarteko bihurtzen da, jatorria

edozein duela ere. Herrialde kapitalista guztietan, eta ez soilik Ameriketako Estatu Batuetan, azken bost urteetako irabaziak gerraosteko beste edozein garaitakoak baino txikiagoak izan dira, eta prezioen igoera sistematikoak erabili dira irabazi horiek bul-tzatzeko eta areagotzeko. Prozesu hori abian jar-tzen denean, gobernuaren moneta- eta kreditu-po-litiken bidez mantendurik, prezioak izugarri igotzen dira, eta berdin eragiten diete kapitaleko entitate guztiei. Ondorioa, amaierako produktuen prezioen igoera ez ezik, kapitalaren etengabeko errebalori-zazioa ere bada, baita kapitalaren balio-galeren bi-dez ekoizpen-kostu garestiagoak aurrez ordaintzea, inflazio-tasa desberdinak aplikatzea irabaziak segur-tatzeko kalkuluak eginez, eta inflazioaren eraginez negozioentzat sortutako arrisku handiak murrizteko gainprezioak ezartzea ere.

Inflazioa areagotzearen arrazoia ez da eskaintza es-kariaren atzean gelditzea, prezioak igotzea eragiten duen irabazi-eskasia baizik, edozein direla ere es-kaintzaren eta eskariaren arteko harremanak. Eska-ria atzean gelditzen ari den tokietan ere, prezioek ez dute behera egiten; kontrara, eskari murriztu horre-tara egokitzen dira, eta gehiago igotzen. Irabaziak handitzeko beharra hain da handia, ezen eskaintza

murritzitu egin baitaiteke horretarako sortutako bitartekoen bidez; esaterako, petrolio-industriak berriki egin duen bezala, zeinak ekoizpena atxikiz behe-rantz zihoazen irabaziak sustatu ahal izan dituen. Herrialde bateko kapitaleko entitate indibidual batek gupidagabeki bilatzen duen bezala geroz eta txikia-goa den gainbalio sozialaren kantitatetik dagokion zatia mantentzea eta handitzea prezioei lotutako neurrien bitartez, are forma lotsagabeagoa hartzen du prozesuak nazioarte mailan, botere politikoaren tresnak nazioarteko lehia osatzeko ere erabil baitaitezke. Beraz, lehertzearen den krisiaren lehen zantzuaren artean dago nazioarteko lehia zorroztea, non eskura izandako baliabide guztiekin mundu mailako irabazien dagokion zatia mantentzen edo handitzen ahalegintzen den herrialde bakoitza.

Gerraosteko goraldia baretzearen eta goraldia sostengatu duten moneta- eta kreditu-politiken ageriko eraginkortasunik ezaren eraginez, aldaketa politiko handiak gertatzen ari dira herrialde kapitalistetan, baita mundu mailan ere. Hartutako lehen neurriek lehia murriztea zuten helburu, antagonismo inperialistak baretzearen bidez. AEBn, Indotxinan gerra egitearen aurka zegoen arrazoietako bat konsumo publiko izugarria zen zalantzarik gabe kapita-

laren ikuspegitik, zeren bazirudien ez zuela mugarik eta are etorkizuneko irabazi errealeen bidez konpentsatzeko aukerarik. Kapitalista batzuen ustez, behintzat, hedapen ekonomikoa gelditu eta nazioartean lehiatzeko zuten ahalmena murriztuko zuen kontsumo publiko geroz eta handiagoak. Gerra amaitzeko, beharrezkoa zen, behinik behin, Asiako hego-ekialdeko potentzia aurkariekin epe motzeko adostasuna erdiestea. Errusiaren eta Txinaren arteko kontraesan inperialisten eraginez –zeinak erlazionaturik zeuden Asiarekin ere–, AEBk aukera izan zuen *statu quo*aren arabera atzera egiteko, eta Asiako botere-politikari eman beharreko irtenbide inperialista etorkizuneko beste une batera atzeratu zen. Harreman ekonomikoei hedatzeko aukera emanez, espero zen munduko egoera baketzeak krisiaren zantzu mehatxagarrienak behintzat arinduko zituela. Gerra Hotzean arerio izandakoek ere partekatzen zuten ikuspegi hori, nahiz eta beste desadostasun batzuek hor jarraitu.

Merkatuaren teorian, munduko merkataritzari ezarritako murrizketa politikoak ezabatzearen ondorioz egoera ekonomikoa partzialki hobetu beharko zatekeen gutxienez; are gehiago, porrot katastrofikoa saihestu beharko zatekeen, politikoki lehertzeaz

zegoen mundua aise murgil baitzitekeen Hirugarren Mundu Gerran. Jatorria ekoizpenean duen krisi bati, baina, ezin zaio aurrea hartu merkataritza eta salerosketa mailara mugatutako neurrien bitartez. Izan ere, merkataritza bera krisia larriagotzen duen faktore bilakatzen da nazio bakoitza haren interes berezien alde egitera beharturik dagoenean, beste herrialde batzuen interesekin kontrakotasunean. Kontua da mota bateko merkataritza-murrizketak kentzean beste mota bateko murrizketak sortzen direla: tarifa-politikak, inportazio-debekuak, herrialdeko eta nazioarteko akordioak haustea, eta harreman ekonomiko guztietan gero eta kaos handiagoa, esaterako. Orain, bidean atzera egitera beharturik dago goraldiak sustatutako ekonomiaren internazionalizazioa, eta interes nazionalei ematen zaie lehen-tasuna berriro ere, munduko ekonomia zurrumbilo handiagoan hondoratzen den bitartean.

Egun, gertu daude krisi geroz eta sakonago baten zantzuak, baina ezin iragarri noraino garatuko diren. Beharbada, azken krisi handiaren neurri katastrofikoa har dezakete; baina litekeena da ekonomia gainbehera-prozesu motel batean sartzea, estatuak ez baititu agortu krisian eragiteko dituen baliabide guztiak. Estatuak hartutako neurriak bes-

te goraldi bat eragiteko nahikoa ez badira, oraindik ere gai izanen dira, kapitalismoaren etorkizunaren kontura bada ere, erabateko gainbeheraren garaia saihesteko. Hala ere, politika horrek badu noraino irits daitekeen zehazten duen mugarik, eta krisiaren irismenak, hain zuzen ere, zehazten du non dauden mugok.

